


Año XLVIII urtea

Nº 90. zk.

2016



# CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

---

**Tradizioaren gaintik  
jauzi! Generoa, tradizioa  
eta aldaketa Baztango  
mutil-dantzetan**

Oihana OTXANDORENA DORREGARAI

---

# Tradizioaren gaineratik jauzi! Generoa, tradizioa eta aldaketa Baztango mutil-dantzetan

---

¡Saltar por encima de la tradición! Género, tradición y cambio en las multidanzas de Baztan

---

Jump above the tradition! Gender, tradition and changes in Baztan's «Mutildantzak»

Oihana OTXANDORENA DORREGARAI

Recepción del original: 17/08/2016. Aceptación definitiva: 25/10/2016.

## LABURPENA

Lan honetan Baztango mutil-dantzak ikertuko dira, non Baztan bailarako hainbat herritako besta eta ospakizun-egunetan tokia duten. Dantza horien inguruan sorturiko gatazka da iker objektua, eta hori azaltzeko mutil-dantzen historia eta nondik norakoak azaltzen dira. Akitzeko, mutil-dantzetan eman diren erresistentziaren arrazoiak aztertzen dira, non botere- eta genero-harremanek mutil-dantzetan daukaten lekua argi azaltzen den.

**Gako hitzak:** mutil-dantzak; tradizioa; identitatea; boterea; espazioa; generoa.

## RESUMEN

En este trabajo se estudiarán las mutildanzas de Baztan, que tienen lugar en los días de fiestas y celebraciones de muchos pueblos del valle. El objeto de estudio es el conflicto surgido en torno a esas danzas, y para explicarlo se cuenta la historia de las mutildanzas y sus pormenores. Finalmente, se analizan las razones de la resistencia que se ha producido en las mutildanzas, donde quedan patentes las relaciones de poder y de género presentes en ellas.

**Palabras clave:** mutildanzas; tradición; identidad; poder; espacio; género.

## SUMMARY

The following paper researches the «Mutiladantzak» in Baztan valley, some dances that take place in festivities of the villages. Being a controversial custom, it produces different opinions among inhabitants, and the aim of this project is to know the origin and characteristics of the dances to understand the reasons of the controversy. To conclude, the dissertation explains the reasons of the current resistance to maintain the tradition, where the influence of powers and gender relations is tangible.

**Keywords:** Mutildantzak; tradition; identity; power; space; gender.

Sumario: 1. SARRERA. 2. BAZTAN ETA BAZTANGO GIZARTEAZ. 2.1. Baztanen lan egitea eta bizitzea posible ote. 2.2. Eskuaraz doike? 2.3. Aldaketaren garaia. 3. HISTORIA PIXKA BAT MUTIL DANTZEN INGURUAN. 3.1. Baztango mutil dantzen historia gaur egun arte. 3.2. Gaur egun: gatazkaren nondik norakoak. 3.3. Hamabortz herri, hamabortz errealitate. 4. ZERGATIK EMAN DIRA ERRESISTENTZIAK MUTIL DANTZETAN? 4.1. Zer nolako pisua daukate tradizioak eta identitateak baztango gizartean? 4.2. Nortzuk ziren plazan dantzatzen ziren mutil dantzariak? Nortzuk ziren danbolin nagusiak? 4.3. Emakumezkoa izateagatik baztertuta. 5. ONDORIOAK. 6. BIBLIOGRAFIA.

Harrigarria da denborak mutil-dantzetan eragin duena. Denborak berak aitzinetik eraman zituen mutil-dantzak, baina itzuli egin dituenean, bere horretan utzi ditu; dena den, berpizte honetan eskuzabalagoa izan da eta garai berrietara egokitzeak aukera eman die dantza hauei. Mutil-dantzari batzuek, aldiz, denbora zigortu eta izoztu nahi dute, berriz aitzinetik eraman ez ditzan. Txistuen doinupean sortzen duten erloju itxurako biribil hark ez du ordulari arrunten martxa eta norabide bera eramaten. Ordulari honen orratzek aurkako norabidean markatzen dituzte segundoak eta denborak ezin du aitzinerat egin. Erlojua garai berrietan txertatuta egonagatik ere, garai berriak ez du lortu erlojuaren barnean sartzea. Denbora izoztuta dago Baztango zenbait herritako plazetan.

Oihana eta Asier Otxandorena, Elizondon, 2016ko apirillean

## 1. SARRERA

Euskal Herriko ospakizunetan garrantzi handia daukan osagaia da dantza, herriko nortasunari lotua, genero-, kultura- eta gizarte-sisteman ere. Kasu honetan, Baztan (Nafarroa) bailarako mutil-dantzak ikertuko dira, bertako herriko bestetan eta ospakizun-egunetan tokia dutenak. Azkeneko urteetan oihartzuna eman da bertan sorturiko gatazka dela medio. Tradizioz mutilek soilik dantzaturiko dantzak egun emakumezkoek ere dantzatzeagatik eman da gatazka, eta hori izanen da lan honen ikas objektua.

Dantza horien gaineko interesa duela urte gutxi sortu zitzaidan, 2012. urtean, Baztanera bizitzera joan nintzenean, hain zuzen. Lehenagotik ere banuen dantza horien existentziaren berri, baina ez nion inoiz kasu handirik egin bertara bizitzera joan nintzen arte. Behin Elizondon bizitzen jarri nintzenean, herriko bestetan dantza hura ikusi nuen, eta orduan konturatu nintzen mutil-dantzen gainean zegoen arazoaz. Bertzetik, antropologiako graduaren nengoela, ikasgai batean bertze gelakide batzuekin batera mutil-dantzen gaineko lan bat egitea otu zitzaigun. Bertan hasi zen nire ibilbidea mutil-dantzen gaineko ikerketan.

Antropologiako azken urtera iristean eta oraindik ere dantza horien gainean neukan interesa ikusirik (bitarte horretan herriko mutil-dantzak ikustera joaten jarraitu bainuen, bai eta hainbat pertsonarekin horien inguruan solastatzen ere), Gradu Amaierako Lana gai horren inguruan izanen zela erabaki nuen.

Testu hau hainbat helburu eta hipotesi aintzat harturik garatu da. Helburu nagusia mutil-dantzak direla-eta Baztan bailaran sortu den polemikaren azterketa egitea da. Helburu zehatzei dagokienez, baztandarrentzat mutil-dantzek duten garrantzi soziala edo kulturala ulertzea da asmoa, kontutan hartuta Baztanen hamabortz herri daudela eta herri horietako errealitatea desberdina dela. Azkenik, dantza eta bere erranahi sinbolikoa aztertu nahi dira, genero-sisteman kokatuta eta tradizioari eta botereari lotuta.

Hipotesiei dagokienez, hiru hipotesi desberdin daude. Alde batetik, mutil-dantzak Baztan bailaran garrantzi handia duten dantzak dira, bai sozialki eta bai kulturalki, eta, ondorioz, ez da edozein dantza, ez da dantza soil bat; sozio-ekonomiarekin eta politikarekin lotuta dago. Bertzetik, mutil-dantzen gainean dagoen gatazka genero-aferra bat da, botere-harremanekin lotuta dagoena. Azken finean, mutil-dantzek zuten erranahi sinbolikoa galdu zuten. Mutilek baino dantzatzen ez zuten dantza izatetik gizonezko helduek, haurrek eta abarrek dantzatutako dantzak izatera pasa ziren. Gatazka emakumezkoak dantzan sartu direnean hasi da. Hipotesi horren baitan bertze bi barne-hipotesi daude. Batetik, mutil-dantza horietan gizonen gizotasunaren errepresentazioa ematen da. Bigarrenik, emakumezkoek, dantza hori dantzatzen dutenean, gizonen lekua hartzen dute, genero arteko botere-harremana sinbolikoki iraultzen delarik. Azkenik, tradizioaren mantentzea bere horretan mantenduko ez zenez, dantzaren pribatizazioaren estrategia erabili da emakumeei sarrera debekatzeko.

Helburu eta hipotesiak kontuan harturik, analisi-unitate desberdinak landu dira, eta horiek hiru multzo nagusitan banatu dira: tradizioa, boterea eta generoa eta berdintasuna. Tradizioaren barnean, identitatea eta emozioak kokatu ditut; boterearen barnean, klase-harremanak eta espazio publikoa eta pribatua; eta azkenik, generoa eta berdintasunaren barnean, indarkeria, errespetua eta gorputza.

Egoera hori aztertzekeo gizarte-antropologiaren begirada guztiz egokia dela erranen nuke. Alde batetik, antropologiak arlo sinbolikoan kokatzen diren erritualak aztertzen ditu, bai modu orokorrean eta bai euskal kulturaren zehazki. Bertzetik, antropologiaren genero-teoriak mutil-dantzetan nahiz Baztango gizartean gertatzen dena modu sakon-ean aztertzekeo erreminta teorikoak ematen dizkigu. Izan ere, genero-sistemen analisiak ahalbidetzen du arlo sinbolikoan (erritualean, hots, dantzan) eta arlo sozialean (emakumeen eta gizonen arteko rolak eta harremanak) uztartzen duen analisisa. Nire kasuan, behaketak eta elkarriketak erabili ditut ikerketa aitzinera eramateko, baita bibliografia desberdinak ere.

Nahiz eta proiektuarekin hasita ez egon, 2015eko uda bitartean, non mutil-dantzak Baztango hainbat herritan dantzatzen diren, zenbait herritara joan nintzen mutil-dantzak ikustera: Irurita, Arizkun, Erratzu, Elizondo eta Lekaroz. Elizondoko bestetan, gainera, bi mutil-dantza desberdinak ikusteko aukera izan nuen, alde batetik plazan egiten den ofizial eta parekidea, eta, bertzetik, gizon-talde batek bere aldetik egiten duena. Azken horretan, gainera, argazkiak ateratzeko eta bideo bat grabatzeko parada izan nuen.

Akitzeko, azken ikasturte honetako (2015-2016) lehen lauhilekoan egindako praktikak eduki behar dira kontuan. Autopracticum aukera hartuta praktikak Baztango Udalean egiteko aukera izan nuen, berdintasun-zerbitzuan, eta proiektuari hasiera eman nion, egindako elkarrizketa guztiak tarte horretan gauzatu.

Nire helburuetako bat mutil-dantzen gaineko gatazkari buruzko diskurtso desberdinak aztertzea izanik eta mutil-dantzen gaineko informazio bibliografikorik ia ez dagoela jakinik, horretan adituak diren eta dantza horietan parte hartzen duten pertsonen elkarrizketak egitea erabaki dut, eta osotara hamahiru elkarrizketa egin ditut. Elkarrizketa horiek Udalean praktiketan nengoela egin nituen, Baztanen bizi nintzela aprobetxatuta. Nire lanaren helburu eta hipotesiei jarraikiz, elkarrizketak hiru bloke nagusitan banatu nituen: alde batetik, mutil-dantzen historiari jakiteko, dantza horietan adituak direnei eginikoak; bertzetik, gatazka horrengatik sortutako talde desberdinetako parte-hartzaileei eginikoak; eta, azkenik, politikariei eginikoak. Aipatu beharra dago lanaren marko etnografikoa egiteko ere bertze elkarrizketa bat egin nuela.

Hasteko, mutil-dantzen gaineko historiari jakiteko, Ion txistularia elkarrizketatu nuen (hura eta atal honetan aipatzen diren hurrengo izenak asmatuak dira, nire elkarrizketatuen identitate babesteko). Ionek, txistularia izateaz aparte, bere aitarekin batera mutil-dantzen gaineko ikerketa historiografikoa egin du eta Jo ala Jo kultur elkarteko kide eta mutil-dantzetako irakaslea da. Bertzetik, Manuri ere elkarrizketa egin zitzaion, hura ere mutil-dantzetako irakasle izan baita, Baztango Mutildantzariak taldeko kide izateaz gain.

Historia alde batera utzirik eta gaur egungo gatazkari bide emateko, eratu diren bi taldeetako kideei elkarrizketa egin zitzaion: Baztango Mutildantzariak taldeko Ricardori (elkarte kulturala da, non beraien helburua Baztango mutil-dantzak ezagutaraztea den, aitzineko mendeetan dantzatzen zuten moduan erakutsiz) eta Plazara Dantzara taldeko kideei (Baztango mutil-dantzen harira sortu zen plataforma da, non plazetako parekidetasuna aldarrikatzen duten). Azken kasu horretan, taldekako solasaldia izan zen, taldeko hiru kideekin egin baitzen elkarrizketa. Horretaz aparte, garrantzitsua iruditu zitzaion Mireni elkarrizketa egitea, mutil-dantzen aferan oihartzuna izan baitu duela urte gutxi Elbeteko bestetan izandako gertakizunagatik. Miren Baztango alkatea izan zen aitzineko legegaldian, eta, horretaz aparte, Bilgune Feministako kide da eta emakumeen parte-hartzearen alde borrokatu du. Plazara Dantzarako kide ere bada, eta horiei egindako taldekako elkarrizketan egonagatik ere aipatu ditudan ezaugarriak direla medio, hari bakarkako elkarrizketa egitea erabaki nuen.

Baztan bailarako politikariei ere elkarrizketa egin zitzaion, kasu honetan Baztango Udala eratzen duen alderdi politiko bakoitzeko kide bati, hain zuzen EH Bilduko kide den Javierri, Carlos Baztango Ezkerreko kideari, Baztan Auzolanean taldeko Nekane eta Santiri, Geroa Baiko Maider eta Nuriari eta, akitzeko, UPNko kide den Ireneri. Politikariei elkarrizketa egiteko bi arrazoi nagusi izan ziren: alde batetik, Baztan bailarako herritarren ordezkariak

direlako, eta bertzetik, egun mutil-dantzen inguruko gatazka edota garrantzi soziala ikusita, haien jarrera edota ardura publikoa zein zen jakin izan nahi zelako.

Akitzeko, lanaren marko etnografikoa egiteko, hau da, Baztango testuinguru sozioekonomiko, linguistiko eta politikoa egiteko, Baztango egungo alkatea den Imanol elkarrizketatu nuen.

Elkarrizketetatik at, hainbat testigantza jaso dut, hamabi osotara. Testigantza horiek eraso-testigantzak izan dira, Baztan bailarako zenbait plaza edota gunetan erasoak (irainak, jazarpenak...) gertatu baitira dantza horiek direla medio (bereziki emakumezkoek mutil-dantzak plazan dantzatzeagatik), eta garrantzitsua iruditu zait horietariko batzuk biltzea. Horretarako, zenbait pertsonarekin kontaktuan jarri naiz eta korreoz edota elkarrizketa bidez jaso ditut testigantza horiek.

Aipatzekoa da proiektua garatzerako orduan bibliografia duten autoreak beraien abizenen bidez izendatu ditudala (aipatzen ditudan lehen aldian izen-abizenekin agertuko dira, baina, ondotik, aipatutako metodoa erabiliko dut); elkarrizketatuak, berriz, beraien izenarekin.

## 2. BAZTAN ETA BAZTANGO GIZARTEAZ

Baztango mutil-dantzen bilakaera aztertzeko ezinbertzekoa da tokiko ezaugarriak ezagutzea. Hipotesian aipatu bezala, mutil-dantza ez da edozein dantza, eta lotura zuzena du egoera sozioekonomiko eta politikoarekin, besteak beste.

Baztan Nafarroako ipar-mendebaldean kokatuta dagoen bailara da. 8.000 biztanlek osatzen dute gutxi gorabehera eta hamabortz herri hartzen ditu barne, lau eremutan banaturik: Baztangoiza (bertan Amaiur, Erratzu, Arizkun eta Azpilkueta herriak barne hartzen ditu), Basaburua (Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz herriak barne harturik), Elizondo (Elizondo, Elbete eta Lekaroz herriak barne hartzen ditu) eta, azkenik, Erberrea (bertan Gartzain, Irurita, Arraioz eta Oronoz herriak barne harturik).



Iturria: wikipedia.org



Iturria: oinezgailurra.eus

Baztanen gaineko marko etnografikoa osatzeko, Imanol elkarrizketatu dut, bertako panorama sozioekonomiko, linguistiko eta politikoaz jakin ahal izateko. Ondorioz, eskainiko dudan deskribapena Imanolen hitzetan oinarrituta dago.

Imanolen erranetan, Baztan nortasun berezia duen komunitate historikoa da, bere izatearen kontzientzia duena eta modu horretan adierazten dena. Imanolek dioenez, azkeneko hogeitau urteei begiratzen badiegu, sozialki Baztanen borroka handiak egon dira, Elizondoko gaztetxea lortzeko, Erdizko meategiaren egitasmoaren aurka, Aldudeko errepidearen aurka, mutil-dantza parekideen alde, Aroztegiko *pelotazo* urbanistikoaren aurka... eta hamaika dinamika kontrakultural: nekazalpunk<sup>1</sup>, kirikoketa<sup>2</sup> bestaren lehendabiziko urteak, e.a. Baztan, elementu kontserbadore aunitz dituen tokia izanagatik, inoiz baino oldar korrago dago. Alde horretatik, mugimendu kontrakultural garaikideen hainbat kezka (ondare komuna, lurra eta ekologia, jendartekotasuna...) gizarte kontserbadore batekin solas egiteko eta garapen-eredu desarrollistari aurka egiteko konplizitate berriak lortzeko baliagarriak izan dira.

Azken hamarraldietan gazte aunitz kanpora joan da ikastera, hiriaren eta landa-ingurunearen arteko dialektika elikatuz, eta, oraino egituratutako komunitate batean, familiaren bidez gazteen pentsaera berriak belaunaldi desberdinetan barreiatu dira balaran.

## 2.1. Baztanen lan egitea eta bizitzea posible ote

Panorama sozioekonomikoaz mintzatzeko, Imanolek berehala José Allende erabiltzen du sarrera moduan:

Baztango azkeneko hogeitau urteetako bilakaera sozioekonomikoari buruz solastatzeko, orain gutti José Allende EHUKo hiri- eta eskualde-planifikazioko katedraduna lurralde-antolaketari buruzko testu batean 1997tik 2007rat hedatzen den aldiari «espekulazioaren hamarkada»<sup>3</sup> deitzen dio. Kontzeptu eta ardatz aski interesgarria, Baztani buruz aritzeko guztiz baliagarria dena. Bada, tarte hori «espekulazioaren hamarkada» gisa hartzen badugu, ondokoa, 2008tik orain artiokoa, krisiaren aldia dela erranen dugu.

Horri jarraikiz, espekulazioaren hedapen-aldian, Baztanek inoiz ezagutu duen garapen urbanistikoa bizi zuen. Horretarako bidea 2002. urtean onartutako Udal Plan harrapariak eman zuen. Gainbehera demografikoko aldi historiko batean –1975az geroztik Baztanen populazioaren galera ematen ari zen– 1.665 etxebizitza egiteko adina

- 1 Nekazalpunk: «Lehendabiziko Nekazalpunk 2001. urtean egin zen; jendarte-eredua ezbaian paratzeko eguna zen Nafarroako herriko okupetako jendeak, EHko gaztetxeetakoak, kanpotik Baztanerat etorritako neoruralak, Baztango nekazariak, gazte asanbladako kide ohiak... Mobida kontrakulturala zen, logika antidesarrollista eta antikapitalista. Hiru urtez egin zen eta jende pila biltzen zen, lehen urtean batez ere. Goizean azoka agroekologikoa, zirkoa, tailerrak... Elektrotxarangak, manifa, kontzertuak, afari begetarianoa Komunikatiboki kriston lanketa egin zen eta garai hori izateko aski aitzinatua: bideo promozionalak, soinu-deiak, kartel potenteak, irudite txukuna... Horrek, ondortik hainbat borroka eta aldarrikapenetarako bidea eman zuen» (Imanolen hitzak, 2016ko ekainean).
- 2 Kirikoketa: «Txalapartaren arrimuan Baztango sagardoaren kultura berreskuratzeko ekimena da» (Imanolen hitzak, 2016ko ekainean).
- 3 J. Allende, «Revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio», *Gara*, 2016/04/14.



lur birkalifikatu zen (2001eko erroldan, Baztango etxebizitzaren % 23 hutsik zegoen eta % 14 bigarren etxebizitza zen, hau da, % 38 erabili gabe edo ia erabili gabe zegoen).

2002. urtean Baztango Plan Estrategikoa onartu zen, eta dokumentu horretan agerienez, aitzineko hamarraldietatik Baztanen populazioaren galera (2009 arte hazkunde positiboa eman zen migrazio-saldo positiboarengatik, baina tasa naturalak denbora guztian negatiboa izaten segitzen du) eta pilaketa ematen ari zen. Galera, biztanle kopurua apaltzen delako, eta pilaketa, jendeak Elizondorako joera duelako. Denbora horretan, eta lehenagotik zetorren hori, herri-guneetatik urrunen diren auzo eta habitaten hustuketa areagotzen da. Desagrarizazio-prozesuek eta dispersaturiko baserri sakabanatuaren bizimodu gogorak, bizimolde berriekin bat egiten ez duenak, aipatu hustuketa ekarri zuten.

Baztango azterketa sozioekonomikoari dagokionez, jarduera ekonomikoaren arabera izandako populazio okupatuaren bilakaerak datu interesgarriak ematen dizkigu. 2011 arteko erroldetako datuek argazki orokorra eskaintzen digute. Hala, azpiko taulan agerienez, 1981etik 2011rako bilakaera horretan hiru datu aipatuko genituzke bereziki. Alde batetik, nekazal jardueraren gainbehera eta egiturazko krisia. Gainerako nekazal lurraldeekin pasatzen den bezala, desagrarizazio-prozesu bizia ematen da. Azkeneko datuaren arabera (2011), populazio aktiboaren % 6,6 bertzerik ez da sektorean ari; hamarkada bat lehenago, aldiz, % 14,4. Gainera, sektorean ari direnen adina aztertuko bagenu, adin-egitura aski zahartua ikusiko genuke. Beraz, ondoko urteetan zerbait egiten ez bada, sektorea kolapsatu eta guztiz bazterrekoa izanen da.

Industriari dagokionez, sektore horretan ari diren gehienak bailaratik kanpo aritzen direla azpimarratu beharko litzateke; aunitz Bortzirietako lantegietan, eta bertze aunitz Iruñerrian. Gainerakoan, sektoreen zerbitzuan hazkunde nabarmena eman da. Sektore hori zaku handia da eta denetariko jarduerak daude.

1. Populazio okupatua jarduera ekonomikoaren arabera							
	1981		1991		2001		2011
		%tan		%tan		%tan	%tan
Populazio okupatua	2897	100	2814	100	3125	100	
Nekazaritza, abeltzaintza <sup>4</sup>	1098	37,9	515	18,6	451	14,4	6,57
Energia eta ateraketa	23	0,8	30	1,1	38	1,2	
Industria	626	21,6	478	17,1	610	19,5	21,29
Eraikuntza	156	5,4	336	11,9	409	13,1	10,43
Zerbitzuak	994	34,3	1435	51	1617	51,7	61,71

Iturria: 1981, 1991 eta 2001eko erroldak. 2011ko datuak EINen errolda oinarri duten Gaindegiaren Atlasetik hartuak (portzentajeak bertzerik ez ziren ageri). Taula norberak egina.

4 Multzo horretan basogintza ere sarturik dago. 1981eko erroldan 72 langile ari ziren basogintzan.


## 2.2. Eskuaraz doike?

Panorama linguistikoaz mintzo, Imanolek 1996tik 2016rako bitarte hainbat ezaugarri nagusi aipagarriak direla deritzo: alde batetik, ezagutzaren bilakaera, eta bertzetik, kaleko erabilera, bai eta D ereduko matrikulazioa eta Udala ere.

Imanolek azaltzen duenez, eremu formalari dagokionez, euskarak tokia irabazi du, eta azkeneko hamarraldietan eremu lokaletan indartu eta herritarren eta toki-erakundeen aitortza izan du. Hala ere, ezagutzaren bilakaerari dagokionez, behera egin duela erran behar da. Hori ulertu ahal izateko, aitzitik aipatu dugun bilakaera demografiko horren migrazio-saldo positiboa har daiteke arrazoi gisa, Baztanera etorritako etorkinen kopuruagatik, horrek azalduko bailuke euskararen ezagutzan emandako beherakada.

Hala ere, azkeneko bortz urteak erreferentziatzat hartuta, aipatzekoa da haur-hezkuntzako ikasle guztiak D ereduan matrikulaturik daudela. Nolabait, bailara barneko dinamikak nagusi egiten du etorkinen haurrak euskaraz hezteko aukera. Horretarako aipagarria da aitzineko legealdian Udalak egin zuen eginahala. Izan ere, gobernu-aldaketak euskarak jendarte-mailan irabazitakoa erakunde-mailarat ekartzeko balio izan zuen. Aitzineko legealdiko aldaketa artio, euskara ideologikoki aitortua bai, baina gero praktikan bigarren mailan zegoen Udalean. Udalak horren aldeko eginahal handiak egin ditu, bai eta UEMAn sartzeko pausua ere.

Udalan ere nabaria izan da euskararen aldeko erabilera, hala nola idatziak egiteko orduan edota batzarretan, euskaraz ez dakien hautetsiendako aldebereko interpretazioa eginez. Bertzetik, euskararen erabilera neurtzeko, azkeneko urteetan kaleko erabileraren neurketak egiten dira noizbehinka.



1997 eta 2001eko datuak: Metaziri aldizkaria, 4. zbkia. 2015eko datuak: Euskararen Soziolinguistika klusterra. Grafikoa norberak egina.

Euskararen kaleko erabileraren neurketak lau-bortz urtean behin egiten dira, baina, aitzineko aldietako datuen faltan, 1997, 2001 eta 2015eko datuak baliatuko ditugu.

Ildo horretan, aipagarria da 2015ean erabilera maila % 61ekoa izan zela, eta 2001ean % 58koa izan zela; beraz, nahiz eta euskararen ezagutza txikitu, erabilerak hiru puntu egin du gora. Hori euskal komunitatearen dinamismoaren isla litzateke, eta euskararen garrantzi gero eta handiagoarena ere bai. Imanolen hitzetan, «orokorrean, herri txikienetan eta errepede-ardatz nagusitik bazterrean diren herrietan euskaraz gehiago egiten da, eta errepede nagusiaren ondoan diren herrietan (Oronoz, Irurita, Elizondo eta Elbete), berriz, gutxiago».

### 2.3. Aldaketaren garaia

Baztan bailaran azkeneko hamarkadetan alderdi politiko desberdinak egon dira agintean, non, adibidez, azken bi legealdietan EH Bilduk irabazi duen eta Baztango alkateak EH Bildukoak izan diren. Panorama politiko horretan mutil-dantzei heltzeko, badira pare bat gauza aipatu beharko zirenak: alde batetik, Xabi Torres Elizondoko alkate izatera iritsi zenekoa mugarrria izan dela, eta, bertzetik, Baztango EH Bilduk izandako esku-hartzea herriko bestaren batean.

Xabi Torresekin hasteko, urte batez (2009) Elizondon txistua jotzen zuen taldeak, neskak dantzarat sartuta, jotzeari uztea erabaki zuen. Hala, Torresek eta bere kargudun-taldeak, herritar guztiek dantzatu ahal izan zezaten, txistulari-taldez aldatzea erabaki zuten, eta, geroztik, Elizondon bertze txistulari-talde bat aritzen da. Aipagarria da ere Xabi Torres bera, Elizondoko alkate izanik, herriko agintaria, dantza parekideen alde dantzatu zela plazan. Urte horretan ere, bestetako meza nagusira ez joatea erabaki zuen... Elizondo bezalako herri batean, urte gutxian aldaketa dezente izan ziren.

Horren ondotik, Baztango Udalaren aldaketa etorriko zen, non EH Bilduk irabazi zuen eta, horrekin, aitzinetik ematen hasitako pausuak indartuko zituen. Horiek ere meza nagusira joateari utzi zioten, eta Amaiurren, adibidez, eragina izan zuten mutil-dantzetako txistulariak kontratatzeke orduan. Nahiz eta besten antolaketa herriaren ardurak izan eta Baztango Udalak esku hartzen ez duen, antolaketa herri-batzarrarena baita, mutil-dantzen afera dela medio, Baztango Udala herriarekin mintzatu behar izan zen besta parekide batzuen alde egiteko, herriak kontratatzen zituen txistulariak isildu egiten baitziren emakumezkoak bertan parte hartzen zutenean.

Hori azalduta eta bailarako gizarte-panorama desberdinak ezagututa, bailan dantzatzaren diren mutil-dantzetara bideratuko naiz. Horretarako, dantza horien marko historikoa egiten dut, bertan dantza horien nondik norakoak azalduz, bai eta historian zehar gaur egunera arte izandako bilakaera ere. Horrekin batera, dantza horiek Baztango herri guztietan modu desberdinean eman direnez, motz-motzean herri bakoitzaren egoera azalduko dut.

## 3. HISTORIA PIXKA BAT MUTIL DANTZEN INGURUAN

### 3.1. Baztango mutil dantzen historia gaur egun arte

Baztango mutil-dantzak aspaldiko dantzak dira. Noizkoak diren erratea, hala ere, zaila da. Manu urte anitzez mutil-dantzetako irakasle eta dantzariak ez daki erantzuten. Ionek, txistulari, dantzari, mutil-dantzetan aditu eta Jo ala Jo kultur taldeko

kideak, mutil-dantzen sorreraz aritzeko, XIV-XVI. mendeetara egiten du salto: «Mutil-dantzak, musikalki solastuz, erran genezake *branleak* direla». Larralde dioenez, XVI. mendean, dantza horiek Thoinot Arbeau idatzitako «*La Branle des Sabots*» (eskala-poién soka-dantza) kapituluan argitaratu ziren (1588). Bertan dantza zati bat agertzen da, non musikalki mutil-dantza baten berdina den. Musikalki antza izateaz aparte, koreografikoki ere antza handia dute. «Gu orain ibili garela Bearnon eta, mantenitzen dire branle hoiek eta elebazio hoi ikusten da, mutil-dantzen elebazio bera dela». Ondorioz, koreografikoki eta mugimenduak konparaturik, antza handia dutela ikusten da.

Mutil-dantzak dantza-jauziak dira, non koreografikoki eta musikalki eboluzio bat izan duten. Hedatua dagoen dantza-sistema izanen litzateke, eta Ionen ideiak errepikatuz eta aitzitik ikusitako antzekotasunak direla medio, dantza-jauziekin lotura handia dutela ikusten da.

Bertzetik, Ionen hitzekin jarraituz eta dantzaren itxurari erreparatuz gero, argi dago dantza horiek arras zaharrak direla, eta honela jasotzen du Xabier Larralderekin idatzitako liburuan: «Dantza hok arras zaharrak direla iduri dute» (Larralde-Larralde, 1991: 11). Gainera, mutil-dantzak lerro biribilean dantzatzen dira eta txistularia biribilaren erdian kokatzen da. Horren arabera, Curt Sachsek erraten duenez (1943), «lerro borbibilean dantzatzea, dantza-molde zaharrenetakoa da». Enrique Jordák ere berdina dio (1978): «Creando el elemento propulsor, residuo de una antigua forma mágica, de la danza».

Kokalekuari dagokionez, badakigu egun Baztan mailan dantzatzen diren dantzak direla. Hala ere, Ultzama bailaran, orain arte Lantzeko eta bertze herri batzuetako bestak alaitu dituzte (Arraras, 1987: 59). Aranbururen hitzetan, Bidasoa ibarreko herrietan, herriko mutilek zirkuluan eta erlojuaren kontrako noranzkoan dantzatzen dituzten dantzak ematen dira, eta hortik dator «mutil-dantza» izena. «Pero las mutil dantzak, por antonomasia, son propias y exclusivas del Valle del Baztán» (Aranburu, 2000: 53). Aipatzekoa da Iparraldean, Luzaiden eta bertzelako herrietan ere dantzatzen diren dantzekin loturak dituztela, jauziak direla medio.

Dantza horiek, bertze dantza anitzek bezala, hala nola Zuberoako muxikoek, beren gorabeherak izan dituzte. Ioni egin nion elkarrizketa batean hark kontatu zidanez, guda karlisten ondotik hasi ziren dantza horiek garrantzia galtzen. Modernitatearen eraginez, herriak handitzen hasi ziren, eta hirietan, berriz, industrializazioarekin batera migrazioa ere iritsi zen. Horrek guztiak hainbat ondorio ekarri zuen, eta, Ionen erranetan, euskal kultura eta hizkuntzaren aldetik jaitsiera handia eman zen. Baztango kasuan zentratuta, bertako herri ttipietako biztanle batzuk hirietara joan ziren eta hirietan ikusi eta ikasitakoaren eragina jaso zuten. Eragin hori herrietara iristen hasi zen, eta musikaren munduan, adibidez, akordeoiaren garrantzia aipatu behar da. Akordeoia herri ttipietara iritsi eta hainbat tokitan jotzen hasi zen, soroetan adibidez. Plazan ez zuten jotzen, moralistak zirela-eta, elizak nazionalismoan jada moralitatearen defentsa sutua egin baitzuen, nahiz eta fandangoa eta porru-salda bezalako dantzak onartu, ukitu erotiko guztiak kendu behar baitziren. Gainera, kanpoko eragina nabaritzen hasi zen, eta musikarekin jarraituz, helduentzako dantzak dantzatzen hasi ziren, hala nola balsa, kontradantzak... Baztango gazteei berrikuntza horiek gustatzen zitzaizkien eta

gauza zaharrak alde batera utzi zituzten. Aipatutako horri, gainera, heriotza eta transmisioaren galera gehitu beharko litzaizkioke.

Hala eta guztiz ere, nazionalismoarekin, Antonio Elizalde eta Jose Telletxearen eta Lekarozko kolegio kaputxinoaren eraginez mutil-dantzak berpizten hasi ziren.

En el mantenimiento y conservación de la mutil-danza baztanesa hay que citar a los txistularis Antonio Elizalde y Jose Telletxea, a principios de siglo, y a Mauricio Elizalde, hijo del primero y sustituto del segundo, y a quien su prolongada y fecunda actividad txistulari le forjó su acreditada popularidad (Aranburu, 2000: 54).

Aita Donostia<sup>5</sup> musika bilatzen hasi zen, eta Antonio Elizaldek bere baitan ikasteari eta erakusteari ekin zion. Hasiera ona izan zuten, baina gerra zibila iritsi zen eta berpizte horri oztopoak iritsi zitzaizkion. Gerra zibilaren ondotik, Mauricio Elizalde<sup>6</sup> erakusten ibili zen, baita Jabier Larralde ere, Amaiurren. Mauriciok, gainera, bere aitarengandik ikasitako musika-ondarea paper lerrodunera pasatu zuen, eta, Aita Donostiarekin batera, egun ezagutzen ditugun partiturak eratu zituzten. Dena ongi joanagatik ere, 1960ko hamarkadan, aitzitik aipatutako jaitziera iritsi zen, modernismoarekin batera. Berriz ere, berreskuratze horretan Xabier Larralde, Mariano Izeta eta Mauricio bera ibili ziren, eta egun mutil-dantzak dantzatzen eta erakusten dituzten horienganaino iritsi dira.

Erranahi sinbolikoari dagokionez, bertze dantza anitzek bezala, mutil-dantzek ere bi izaera desberdin izan dituzte: alde batetik errituala eta, bertzetik, dantza soziala. Mikel Aranburuk dioen bezala, lehenengo kasuan, dantzaria erritu-zeremonia baten parte da komunitatearen aitzinean, non bertan funtzio zehatz bat izango duen. Bigarrean, berriz, jostaketa, entretenimendua eta erlazio pertsonala bilatzen duen dantza izango litzateke (Aranburu, 2000: 14). Lehenengo kasua egun puntualagoetan egiten zen, hala nola Elizondoko Santio egunean, eta bertan autoritateak zerikusi handia zuen. Herriko autoritateak bi gazte aukeratzen zituen, danbolin nagusiak, biak ere mutilak, eta horiek, bertzeak bertze, mutil-dantzak irekitzeko betebeharra izaten zuten, dantzari hasiera emanez, beraiek aukeratutako bertze bi danbolin nagusiekin. Dantzaren sarrera horren bidez komunitatearen aitzinean aurkezten dira, baina autoritate bezala agertuta, azken finean autoritatearen ordezkariak baitira. Bigarren kasua, berriz, igandero dantzatzen ziren mutil-dantzak izango lirateke, arratsaldeetan dantzatzen zirenak (salbuespenak albuespen).

Egun hemeretzi mutil-dantza daudela erran dezakegu. Aitzitik, gehiago zirela uste da, Aita Hilario Olazarane<sup>7</sup> erran bezala: «Los ancianos del Baztán recuerdan que

5 Aita Donostia: donostiar musikagile, elizgizon eta euskal idazlea izan zen, musika eta folkloreaken miresle. Lekarozen bizi izan zen eta mutil-dantzen berreskuratze-prozesuan anitz lagundu zuen. Bere bibliografiatariko bat aipatzearren: *Música de tecla en el País Vasco, siglo XVIII* (1953), Lekaroz, Aita Donostiaren artxibategia.

6 Mauricio Elizalde: Amaiurren sortutako txistulari arizkundarra. Mutil-dantzak bere aitarengandik ikasi zituen buruz, eta mutil-dantzak erakusten ibili zen hainbat tokitan zehar.

7 Aita Hilario Olazarane: Lizarran jaiotako organo-jotzailea, musikagilea eta piano, txistu eta danbolineko irakaslea izan zen. Aita Donostia bezala, Baztango mutil-dantzen gainean lan eginikoa da. Esaterako, Nafarroako folkloreakin oinarritutako *Mutil-dantza de Baztan* pianorako obra argitaratu zuen.

había más de veinticinco mutil-danzas diferentes en melodía y movimiento. Hoy existen unas doce salvadas milagrosamente del olvido...». Larralderen erranetan, herriko zaharrez ari denean Rafael Goñiri buruz ari da. Hura Antonio Elizalderekin ibili zen berreskuratze-lanetan, *Tellarin* izeneko dantza berreskuratzen hain zuzen. Ordurako bazekiten errepertorioa galtzen zihoala. Bertzetik, dantza horiek zenbatzea zaila da, jauzien kasuan bezala dantza nagusiak baitaude (luzeak; lehen akaso ez, baina denborarekin luzatu dira), eta gero dantza nagusi horiei luzapen moduko bat egiten zaie. Aitzinetik aipatu bezala, Baztanen duela ehun urte inguru berreskuratze bat eman eta galdu zen, eta berreskuratze horietan gauza berriak sartu dira nahi gabe. Hala, erran daiteke mutil-dantzak pixka bat transformatu direla.

Hauek izanen lirateke hemeretzi mutil-dantzen izenak: *Aunitz urtez* hasiera emateko, *Hiru puntukoa*, *Billantziko*, *Biligarroaine*, *Biligarroaine zaharra*, *Billantziko txiki*, *Billantziko zaharra*, *Zahar-dantza*, *Mando zaharraine*, *Xerri-begi*, *Xerri-begi zaharra*, *Muxiko*, *Xoxuaine*, *Ardoaine*, *Añar-haundi*, *Tellarin*, *Xoriaine*, *Añar-xume*, *Zazpi-iauzi* eta *Zazpi-iauzi zaharra*. (Larralde-Larralde, 1991: 12-13). Izenek jakin-min handia pizten dute, dantzen izenburuek txoriei, abereei, jendearen langintzei eta abarri egiten baitiete erreferentzia.

Xorienak baditugu bat baino gehiago: Xoxuaine, Xoriaine, Biligarroaine eta abar. Uste dugu izenburu hok ez dutela deus ikustekorik gaurko egunean egiten ditugun dantzekin baino ez dakigu soinua eta dantza ere, xori edo abere hoiien xixtuetatik sortuak ziren edo bertzenaz dantza hoiiek kantuz egiten ote ziren eta mutil-dantza hoken izenak kantuen izen-buruek hartu ote zituzten (Larralde-Larralde, 1991: 11).

#### Urbeltzek ere horren ustea du:

Lo más lógico sería suponer que nos encontramos ante un resto de viejas danzas imitativas, de animales, propias del Pirineo, que han evolucionado hacia formas de mayor abstracción (Urbeltz, 1978: 102).

Izenak alde batera utzirik, dantzatzeko moduari helduko diogu. Urbeltzen hitzei jarraikiz, aitzinetik aipatu bezala, sarrera *Aunitz urtez*arekin hasten zen. Danbolin nagusiek emanen zioten hasiera, eta bakoitzak eskuineko eskuarekin boneta hartu eta mantso-mantso plazaren inguruan (txistulari eta atabalaria inguratzen) biribila erakitzen joaten ziren. Dantzatzera hurbiltzen ziren bertze gazteak danbolin nagusi horien artean jartzen ziren, bi danbolin nagusien aitzinean gelditu arte, lerroko lehenengoak, eta bertze biek lerroa ixten zuten. Boneta erabiliz, publikoa agurtzen zuten, boneta erlojuaren kontrako noranzkoan jiratuz eta, aldi berean, «Aunitz urtez!» erraten. Behin melodia amaiturik, pareak ez ziren dantzariak buelta ematen zuten eta pareen aitzinean kokatzen ziren, haiei boneta ezartzeko, aldi berean «Aunitz urtez!» erran eta bertzeek bueltan «Bertze hain bertzez!» erantzunik. Behin agur horrekin amaiturik, bertze dantzei ematen zieten hasiera (Urbeltz, 1978: 101).

Dantza horiek dantzatzen zituzten mutil-dantzarietarako dagokienez, badakigu historikoki mutilek bakarrik dantzatzen zituzten dantzak zirela. «Las danzas colectivas de hombres solos [...] se dan bailes en círculo y sentido anti horario de jóvenes varones» (Aranburu, 2000: 53). Janzkerari dagokionez, honela mintzo da Arraras: «Zapato de becerro negro

de puntera roma, [...] la camisa de blanco lino, [...] encima del chaleco vestía chaqueta corta, lasta la cintura, de paño encarnado, atada con una fila de botones, sin cuello pero con doble solapa, siendo pequeña la superior y más amplia la inferior...» (Arraras, 1987: 64). Horri boneta gehitu beharko litzaioke.

Mutil-dantzetan ikusten dugunez, janzkerak badauka bere garrantzia (ez dute edozer janzkera eramaten, ez dira eguneroko arroparekin dantzatzera ateratzen), eta horrek errituaren performancea indartzen du. Erran dezakegu janzkerak, gorputzaren luzera kontuan harturik, botere semantiko handia daukala. Colombresek azaldutako ideari helduz, haren elementuek uneoro mezu politiko, ekonomiko edota estetikoak transmititzen dituzte (Colombres, 1997: 104). Horrez gain, generoaren arabera ematen den desberdintasuna aipatu beharko litzateke. Baztango mutil-dantza horietan beti ere gizonezkoek dantzatu izan dutenez, badakigu nola dantzatzaren zuten gizonezkoek, inongo emakumezko dantzariaren janzkeraz ezer jakin gabe. Hala ere, aipatzekoa da oro har Euskal Herriko emakumezkoek zein gizonezkoek horrelako ekintza kulturaletan janzkera ezarri egin zaiela: egun ezagunak diren «baserritar» janzkera horiek. Ondorioz, janzkera horiek errituarekin lotzeaz aparte, generoarekin ere lotu behar dira, ez baita berdina bi generoek ekintza edota erritu puntual horietan eramaten duten arropa, eta bi generoak guztiz banatzen dituzte.

### 3.2. Gaur egun: gatazkaren nondik norakoak

Egun, berriz, ez dira mutilak soilik mutil-dantzetako protagonistak. Mutil-dantziariak emakumezkoak, gizonezkoak, adineko jendea, gaztetxoak, neskak zein mutilak izaten ahal dira. Nahiz eta mutil-dantzetan ez den aldaketa hori bakarrik gertatu, hori izan da egun sortu den gatazkaren kausa. Aldaketez mintzo, dantzatzeko ordua aldatu da, baita dantza horiek dantzatzaren diren aldi kopurua ere (esaterako, igandero dantzatzetik egun puntualenetan dantzatzera). Bertzetik, garai batean mutil-dantzak herrietako danbolin nagusiek irekitzen zituzten moduan, egun edozein norbanakok egin dezake. Hala ere, ni gatazkaren sorreran zentratuko naiz, genero-aferan hain zuzen. Baztanen, duela urte batzuk jada emakumezkoak mutil-dantzak dantzatzaren hasi ziren, Manu mutil-dantzetako irakasle izandakoaren hitzetan:

Neri behin erran zatan aspaldi Aizkungo batek, Bozatekoak, berak aspalditik dantzatzaren zituela mutil-dantzak, bainon ez publikoki. Ta gero, badago Erratzun ere, duela 40-35 urte emakumezko bat mutil-dantzak dantzatzaren hasi zela... Ta gan da mantso-mantso gaur egunera arte.

Hala ere, gatazkak ez darama urte anitz gure artean; guk dakigunez, duela 30 urte ez zen horrelako gatazkarik izan edo izaten. Gatazka horren zergatia azaltzeko teoria anitz daude: batzuen erranetan, gatazka bilatua izan da; bertze batzuen ustetan, Bidasoaldeko alardeek badute zer ikustekoa; bertze batzuen ustez, boterearekin dauka zer ikustekoa, komunikabideen eraginagatik... Teoriak teoria, gatazka horrek askotariko ondorioak ekarri ditu, bertzeak bertze istiluak eta eztabaidak, plazetan bai eta plazetatik kanpo ere. Istiluak larriak izan dira, albisteetan ikusi ahal izan dugun moduan: irainak egon dira, jazarpenak...

Istilu horiek jasotzen saiatu naiz, Baztango zenbait herritarren laguntza eta testigantzekin, ondotik datorren taula hau osatzera iritsiz. Erran behar da nik jasotako datu hauetaz aparte gehiago ere badaudela, baina ezin izan ditut denak jaso.

XIX. mendea	Erratzuko bestak	Soka-dantzan, neska agot <sup>8</sup> bat sartu zen eta animeleko kalapita sortu zen.
1988-1990	Arizkungo bestak	Arizkunen, neska batzuk sartu ziren plazarat mutil-dantzak dantzatzera eta irainak jasan zituzten: «Falta zena! Fite gizonak erdi beharko dugu!», «Ergelak»,...
1990-1992	Baztandarren Biltzarra (Elizondo)	Bazkalondoan, txistularia mutil-dantzak jotzen hasi zen, eta jendea dantzarat sartu zelarik, musika gelditu zuen eta erran zuen: «Neskak kanpora!». Ez ginen atera, eta berriz hasi zen eta berriz gelditu. Gero, alde egin zuen. Hortik aitzin, Baztandarren Biltzarrean mutil-dantzak kendu zituzten bazkalondotik.
2008-2006	Iruritako bestak	Herriko batzuen partetik irainak jaso zituzten neska batzuek mutil-dantzak dantzatzera sartzeagatik.
2008-2009	Lekarozko bestak	Mutil-dantzak dantzaten ari zirela, neska bat dantzan ari zen eta ukabilarekin mehatxatuz aterarazi zuten.
2009	Elizondoko bestak	Bi neska mutil-dantzetan sartu ziren eta bertan parte hartzen ari zirenek dantzatzeari utzi zioten, eta zirkuluan bi neska horiek eta bi mutil baizik ez ziren geratu dantzan. Musikariek ere jotzeari utzi zioten. Gau horretan bertan, pegatinak atera zituzten isiltzen ziren txistularien alde («Ni ere Elizondoko txistulariekin!», Baztango armariarekin batera) eta bertako txistulariek herrian jotzeari utzi zioten. Horrela, txistulariz aldatu zuten.
2009-2010	Lekarozko bestak	Mutil-dantzak dantzaten ari zirela, emakumezkoak parte hartzen hastean, herriko argiak itzali zituzten eta ilunpetan dantzatu zuten. Hurrengo egunean ere argiak itzali zituzten, baina herritar batek argi-foku bat jarri zuen plazara bideratuta.
2010-2011	Lekarozko bestak	Alkateak isiltzeko erran zien txistulariei emakumeak mutil-dantzetan sartzaren baziren. Txistulariek ez zuten isiltzeko asmorik, baina eskatuz gero (hark ordaintzen zuen heinean), hura plazara ateratzeko erran zioten, azalpenak emateko.

8 Agot: los llamados agotes o cagotes, cuyos primeros indicios se hallan en documentos del siglo XIII, vivieron en los valles de los Pirineos durante seis siglos como una raza o comunidad diferente. Al considerárseles portadores del pecado original, se recomendaba mantenerse alejado de ellos por su mala sangre. <<http://www.euskonews.com/0070zkb/gaia7004es.html>>.



2011	Elbeteko bestak	Zikiro-jate egunean mutil-dantzak dantzatzen ari zirela, neska batzuk parte hartzera sartu eta bultzaka atera zituzten dantzalditik. Ordura arte mutilek eta neskek elkarrekin dantzatu izan bazuten ere, Elizondoko gertaeren ondotik, gauean berriz ere neskek sartu ziren eta berriz ere kalapita izan zen.
2013	Elbeteko bestak	Meza nagusiaren ondoren mutil-dantzak dantzatzeko Elbeteko mutil-dantzari talde pribatua kontratatu zuen Elbeteko herriak. Ondorioz, talde pribatua izanik, ez zegoen «printzipioz» publikoari zabaldua. Gauzak horrela, Udaleko zinegotzi (gizonezko) bat sartu zen dantzara eta dantzariak dantzan jarraitu zuten. Hortik minutu batzuetara, berriz, Baztango alkatea sartu zen dantzara (kasu honetan emakumezkoa) eta dantzariak dantzatzeari utzi eta plazatik alde egin zuten. Alkateak oihuak eta irainak entzun behar izan zituen dantzara ateratzeagatik. Egun bereko gauean berriz ere mutil-dantzak deituak zeuden, berriz ere istiluak izan ziren eta azkenean ez ziren dantzatu.
2014	Baztandarren Biltzar egunean (Elizondo)	Baztango gizon-talde bat mutil-dantzak dantzatzen ari zela, emakumezko bat parte hartzera sartu zen. Orduan, musika isildu zen eta iraindu eta mehatxatu egin zuten (ondotik testigantza osoa azaltzen da).
2014	Elizondoko bestak	Ikastolako parkean, gizon-talde bat mutil-dantzak dantzatzeko prestatzen ari zela, lau emakume haiekin sartu ziren «biribilean». Gizon dantzariak eskuak gurutzatu zituzten beraien tokitik mugitu gabe. Gizonak ikustera joan zen publikoak emakume haiek iraindu zituen.
2014	Gartzaingo bestak	Bestetako egun batean, herriko eta inguruko jendea mutil-dantzak dantzatzen hasi zen. Herriko bati ez zitzaion ongi iruditu eta oihuka eta irainka hasi zen; aldi berean, txistulariei ere aurpegi eman zieten. Irainak eta oihuak izan ziren. Horren ondorioz, 2015. urtean bestetako egitarautik kendu zituzten, hogeitun urte luzez dantzatu ondotik.

Gatazka horren harira, bi talde sortu dira Baztango bailaran. Alde batetik, Baztango Mutildantzariak taldea, eta bertzetik, Plazara Dantzara taldea.

Baztango Mutildantzariak taldea mutil-dantza «tradizionala» ez galtzeko helburuarekin sortu zuten Baztango zenbait gizon-emakumek: «Es una defensa de la mutil-dantza tradicional desde el respeto a los que no defienden la mutil-dantza tradicional». Beraiek diotenez, espresio edota modu hori ez galtzeko helburu bakarrarekin. Talde horretako kide batek honela azaldu zidan:

Cuando nos juntamos unos cuantos, nos juntamos porque nos sentíamos acosados, senci-

llamente, y cuando te sientes acosado te sientes amenazado. Aunque no entiendas lo que está sucediendo, lo que haces es actuar para defenderte, y como defensa, ¿qué estamos defendiendo? La mutil-danza tradicional. Por eso hicimos esa asociación (Ricardo).

### Bertzetik, Plazara Dantzara taldeko kide batek hau adierazi zuen:

Erantzun gisa izan zen: prentsaren bidez jakin genuen Baztango Mutildantzariak Taldea sortu zutela eta deialdia egiten zutela beren taldeko kideak izateko «mutil-dantzak beti dantzatu diren bezala» dantzatera, edo holako zerbait. Orduan guk deialdi bat egin genuen eta 20 bat pertsona elkartu ginen. Beraiengana joan ginen taldean sartzeko, guk ere «mutil-dantzak beti dantzatu diren bezala» dantzatzen ditugulako. Ez gintuzten onartu eta hor hasi ginen biltzen eta kanpainan. Hor sortu zen Plazara Dantzara (Elurre Iriarte).

Talde hori Baztanen bizi diren zenbait emakumek eta gizonak sortu zuten, eta bere helburu nagusia Baztango plaza publiko guztiak parekideak izatea da, diskriminazioarekin bukatzea lortu nahi baitute.

Bi taldeok erasoak salatu dituzte. Baztango Mutildantzariak jazarpena salatu dute; Plazara Dantzarakoek, berriz, eraso hitza modu zabalagoan erabiltzen dute: irainak, txistuak, bultzadak... Eraso horiek hobeto ulertzeko, hainbat baztandarri beraiek jasandako erasoengatik inguruan galdetu nien, eta hau izan zen elkarrizketatutako batek 2014ko uztailean Elizondon jasandako erasoak:

Dena oso azkar pasatu zen. Konturatzeko txistularia jotzen hasi eta dantzan hasi ziren. Bakarrik nengoen, multzoaren kanpoaldean. Dantzari batek, probokatu, begietara begiratu eta, irribarrez, bonetarekin agurtu ninduen. Bi aldiz pentsatu gabe, beraiekin dantzatzea erabaki nuen, ondorioetan pentsatu gabe. Dantzatzen hasi eta berehala txistularia isildu eta irainak hasi ziren: «kanpora», «siempre jodiendo», «te metería un palo por el culo» eta gisa horretakoak entzun nituen, eta gizon batek besoa altxatu zidan, jotzeko itxurak eginez. Segituan heldu ziren nire bi lagunak, eta inguruan zeuden ezagun batzuk tartean sartu ziren, ni jotzeko arriskua handia zela ikusi zutenean. Nik beste aldera begiratu nuen. Beldurrak paralizaturik, geldirik egon nintzen nire lagunengatik zain eta dantzarirengatik baten kolpe bat jasotzeko beldurrez. Tentsioa ikaragarria izan zen. Eztabaidatzen hasi ginen eta batzuk erretiratu egin ziren.

Adibide horretan argi eta garbi gelditzen da emakume hark pairatutako indarkeria edota eraso linguistikoa, horren barruan indarkeria fisikoa kokatzen ahal dugularik. Azken finean, fisikoki eraso ez zuten arren, haren kontrako mehatxua izan zen. Ondorioz, testigantza horretan hiru eraso desberdin identifikatzen ahal ditugu: eraso linguistikoa, eraso fisikoa eta mehatxu-erasoa.

### 3.3. Hamabortz herri, hamabortz errealitate

Gaur egungo egoera pixka bat ulertzeko, motz-motzean Baztango hamabortz herrietako errealitateak azalduko dira. Dantza horiek ez dute garrantzi berdina herri guztietan, egun ez baitira guztietan dantzatzen, eta, gaur egungo gatazka kontutan harturik, gatazka ez da herri guztietan berdinean ematen.

Horretan garrantzi handia izan du Jo ala Jo talde kulturalak, 2005. urtetik aitzin hainbat herritan dantzak erakusten eta bultatzen egon baitira, eta, egun, oraindik ere horretan dabilta. Haiek egindako analisi bati tiraka azalduko dut errealitate hori.

**ALMANDOZ:** mutil-dantzak galduak eduki dituen bertze herrietariko bat da. 2005etik aitzinera berreskuratze-lanetan ibili da Jo ala Jo, eta urte batzuez dantzatu izan da. Hala ere, ez da jende gehiegirik animatzen. Emakumeen presentziari dagokionez, ez da inongo arazorik egoten.

**AMAIUR:** Amaiurren ez dira mutil-dantzak galdu, nahiz eta parte-hartzea nahiko eskasa izan 2005. urtetik aitzin. Orduetik indartu da, baina erran beharra da herritarrek ez direla gehiegi inplikatzin. Aipatzekoa da herri horretan urteren batez ez zirela mutil-dantzak egin, baita aitzineko legealdian EH Bildu Baztango Udalean sartu zenean herrikoekin mintzatu eta mutil-dantzak geldiaraziko zituen txistularirik ez kontratatze eskatu zuten. Horrekin ere desadostasunak egon dira. Emakumearen presentziari dagokionez, berriz, ez da arazorik egon.

**ANIZ:** mutil-dantzak galduak izan dira bertan ere, baina egun normaltasun guztiz dantzatzin dira bestetako egun batean. Bertako herritarrek parte-hartzaileak dira eta emakumearen presentzia modu arruntean eman da.

**ARIZKUN:** Amaiurren bezala, ez dira mutil-dantzak galdu, baina aitzineko horrekin konparatuz gero, garrantzi handiagoa izan dute herri horretan. Ionen hitzetan, mutil-dantzak beti dantzatu dira Arizkun. Parte-hartze handia izaten da, bai dantzan eta bai ikusten, eta urtetik urtera gora doa. Emakumearen presentziari dagokionez, berriz, ez da erasorik egon, nahiz eta mutil-dantza mistoaren aurkako sektore eragile bat egon.

**ARRAIOZ:** Anizko kasu berdina eman da Arraiozen. Galdu egin dira, baina egun modu parte-hartzailean eta berdintasun-egoeran dantzatzin dira mutil-dantzak herriko bestetako egun batean.

**AZPILKUETA:** mutil-dantzek ez dute garrantzirik herri horretan. Galduta egon dira eta egun ere galduta daude. Hala ere, 2005. urteaz geroztik bizpahiru urtez dantzatu izan da, dantza parekidea dantzatzin, eta ez da inongo arazorik egon. Ionek aipatu zuenez, horietako batean oihuren bat edo izan zen, baina herritarrek beraiek isilarazi zutela kontatu zuen. Bertzetik, erran behar da herritarrek beraiek ez dutela parte hartzen. Jo ala Jo egon da tarteko beti ere.

**BERROETA:** mutil-dantzak galduak egon ziren 2005. urtera arte. Egun urtero dantzatzin dira, bertze herri batzuetan bezala, herriko bestetako egun batean. Parte-hartze handia da herrikoen partetik, eta herriak berak deitu du Jo ala Jo mutil-dantzak erakusteko ikastaroa egin dezan. Emakumearen presentziari dagokionez, ez da inongo arazorik izaten.

**ELBETE:** mutil-dantzak ez dira galdu, eta 2011. urtera arte emakumeen presentzia inongo arazorik gabe eman da, baina behin alkatetza-taldea sortuta, txistulariz aldatu zuten eta hura emakumeak sartzean isiltzen hasi zen. Hortik urte batera, herritar batzuek mutil-dantzak pribatizatu zituzten. 2013. urtean, berriz, bi mutil-dantzak plazan burutzea proposatu zen (ordu desberdinetan), alde batetik parekidea eta bertetik talde pribatuaren erakusketa.

ELIZONDO: herri horretan ere mutil-dantzek indarra izan dute eta ez dira galdu. Mutil-dantzetako parte-hartze tradizionalari dagokionez, herri boteretsua izan da eta emakumeei kostatzen zaien plazan mutil-dantzetan parte hartzea. Plaza parekidea izan aitzin gertatu izan da plaza berean bi zirkulu desberdin egotea, bata emakumeen parte-hartzearekin eta bertzea ez. Egun, bi mutil-dantza desberdin ematen dira: plazan mutil-dantza parekideak eta, bertetik, mutil-dantza «tradizionala» dantzatu nahi dutenena. Plazan emakumeen presentzia naturala da.

ERRATZU: mutil-dantzak ez dira galduak egon, baina lehen dantzatzen zuten gizonen artean egun ez dituzte dantzatzen. Dantzari kopuruari dagokionez, berriz, egunez jende gutxi biltzen da, baina gauekoan gehiago. Emakumearen presentziari dagokionez, berriz, ez da gatazkarik izan.

GARTZAIN: mutil-dantzak ez dira galduak egon. Erran daiteke lehen baino gutxiago dantzatzen direla (egun bakarrean), baina beti dantzatu izan dira. Mutil-dantzak parekideak izan dira beti, baina 2012. urtetik aitzin (Elbeten pasatakoak eragina izan dezake), emakumeen parte-hartzearen aurkako iritziak azaldu dira eta kalapita sortu izan da plazan. Ondorioz, azkeneko bi urte hauetan ez dira mutil-dantzak antolatu herriko bestetan.

IRURITA: Irurita arras herri indartsua izan da eta bertan mutil-dantza tradizionala dantzatu izan da beti. Urte batez emakumeak sartu ziren eta arazoak egon ziren. Ondotik, bizpahiru urtez ez zen dantzatu. Erabaki hori polemika hasi zelako eman zen gehienbat, eta, ondorioz, mutil-dantzak programatik kentzea erabaki zuten batzarrean. Gehienbat herriko bestetan haserretik ez izateko hartu zuten erabakia, eta beldur zirelako emakumea dantzara sartuz gero jendeak nola erantzungo ote zuen. Beraz, egoera hori saihesteko erabili zuten. Hala ere, urte horiek pasata, berriz ere berreskuratu zuten eta programan jarri zuten. Orain normaltasun guztiz dantzatzen dira; neskek eta mutikoak, jendea ikusten... inongo arazorik gabe gauzatzen dira mutil-dantzak Iruritako plazan.

LEKAROS: bertan ere mutil-dantzak ez dira galdu. Kalapita handiak egon izan ziren duela urte batzuk, irainak, txistuak... Egun, berriz, nahiz eta seguruenik mutil-dantza «tradizionalaren» aldeko aitzin egon, ez da horrelako kalapitarik ematen. Herrian parte-hartzea handitzen ari da eta emakumeen presentzia modu arruntean ematen da.

ORONOS: herri horren kasua Azpilkuetaren berdina edo berdintsua da. Bertan ere galduak egon dira mutil-dantzak eta oraindik ere galduak daude. Saiakera bat egin zen baina ez zuen fruiturik eman. Hala ere, diotenez, mutil-dantza dantzatu izan denean dantza parekideak eman dira, inolako arazorik sortu gabe. Han ere Jo ala Jo egon da tarteko.

ZIGA: mutil-dantzak galduak zeuden, baina 2005etik aitzin dantzatu egiten dira. Bertze herri batzuetan bezala, Zigan ere egun bakarrean dantzatzen dira dantza horiek. Emakumeen presentzia guztiz normala da eta modu naturalean ematen da, eta gainera neskek entseguak egiten dituzte. Hala ere, herritarren parte-hartzea urria da.

Ikusten da Baztango hamabortz herrietan egoerak arras desberdinak direla: herri batzuetan ez da dantzatzen, bertze batzuetan mantso-mantso indarra hartzen doa...

Deigarria da, hala ere, kalapita izan duten herriak berez ere boterea izan duten herriak izan direla, hala nola Elizondo eta Irurita. Nire iritziz, hori boterea galtzarekin guztiz lotuta dago. Azken finean, mutil-dantzetan gizarte osoak dantzatzeari trabak jartzen dizkietenak boterea izan duten pertsonak dira, eta jakin badakite denek dantzatzen badute botere hori galduko dutela, pertsona ororen berdintasun osoa emanaz.

Egun, hala ere, mutil-dantzak izaten dituzten herri guztietako plazetan dantza parekideak egiten dira. Elizondoren kasuan, baina, nahiz eta plazan dantza parekidea izan, bi mutil-dantza dantzatzen dira: alde batetik, plazan dantzatzen diren dantzak, eta bertetik, gizon-talde batek dantzatu nahi dituen mutil-dantza «tradizionalak».

Dantza parekideek indarra hartu zutenean, gizon batzuek, beren dantzatzeko modu tradizionala galtzeko beldurra zela medio, plazatik atera eta bertze espazio batean dantzatzeko hautua egin zuten. Azkeneko urteetan ikastolako parkean dantzatu izan dute, baina dantzan egon bitartean, haien iritziaren kontrako pertsonak azaldu izan dira haien dantzetan parte hartzera, toki publiko guztietan dantzatzeko eskubidea baitute, eta kalapitak sortu dira. Azkeneko Elizondoko bestetan, eliza ondoko parkean dantzatzen amaitu dute.

Aipatzekoa da kalapitak izan direla Plazara Dantzara eta Baztango Mutildantzariak taldeen artean eta Udalak esku hartu duela. Bi bilera egin dira bi taldeen artean, inongo soluziorik atera gabe. Esaterako, aitzineko urtean, Baztango Mutildantzariak taldeak proposamena luzatu zien Plazara Dantzarako partaide batzuei, eta plazan mutil-dantza parekideak dantzatzeko prest zaudela erran zieten, baina beraiei bere saioa egiten uzten baldin bazieten. Plazara Dantzarak ez zuen proposamena onartu.

#### 4. ZERGATIK EMAN DIRA ERRESISTENTZIAK MUTIL DANTZETAN?

Orain arte azaldu dudak guztia ikertuko dut orain, materiala, elkarrizketak zein behaketak kontutan hartuz. Analisi hori egiterakoan, helburuak, hipotesiak eta analisi-unitateak aintzat harturik, hiru bloke nagusi ezarri ditut:

- Tradizioa
- Boterea
  - Klase-harremanak
  - Espazio publikoa eta pribatua
- Generoa eta berdintasuna
  - Indarkeria

##### 4.1. Zer nolako pisua daukate tradizioak eta identitateak baztango gizartean?

Arrazoi multzo bat tradizio, emozio eta identitatearen inguruan biltzen da. Tradizioa, Macíasen erranetan, ohiturak, errituak, ekintza sozialak, ideiak, baloreak eta jokatzeko erak dira, historikoki eratu direnak eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak. Ondorengotza soziokulturaleko elementuak dira, non denbora luzez gizartean (edo talde sozial ezberdinetan) mantentzen diren (Macías, 2012).

Ondorioz, definizio hori mantenduz, Baztango mutil-dantzak tradizio handiko dantzak dira. Ikusten da, gainera, baztandarrentzat garrantzi handia duten dantzak direla, denbora luzez belaunaldiz belaunaldi erakutsi eta ikasi baitituzte. Egindako elkarrizketetan argi ikusten da ondare immaterial hori mantentzeko gibelerat (tradizio horren gainean) jartzen dutela begirada. UPNko Irenek argi utzi zuen berari egindako elkarrizketan: «Todas las muestras de la cultura, todas tienen una importancia y valor tremendo», eta mutil-dantzetan zentratuz, «y las mutil-danzas son una joya. Culturalmente son una joya». Gainera, badakigu egun behintzat Baztanen bakarrik dantzaten diren dantzak direla, eta, ondorioz, horrek ere bere garrantzia ematen dio: «Bueno, danza baztandarra da betitik eta gustetzen zaigu» (Javier, EH Bilduko zinegotzia). «Gure motibazioa da euskaltasun batekin lotzen dugule, kultura herrikoa baita, bertakoa, eta hoi defenditu behar da» (Ion). Hori ere tradizioarekin lotzen den afera dela dio Macíasek, tradizioa kulturarekin lotzen baita eta, kasu horretan, herriko kulturaren parte hartzen baita.

Mutil-dantza modu «tradicional» batean mantendu nahi dutenek ere gibelerat begiratzen dute beren ideiak defendatzeko: «Intentamos mantener que se bailen, por lo menos que haya cabida para que haya repertorio de mutil-danza entre comillas “tradicional”, por el hecho que sea bailada solo por hombres, ¿no?». Haien helburua da «únicamente y exclusivamente que no se pierda esa expresión, esa manera» (Ricardo, Baztango Mutildantzariak taldeko kide). Dantzatzeko modu hori ez galtzeko, Baztanen bizi diren herritar batzuek aitzitik aipatutako Baztango Mutildantzariak taldea sortu zuten, dantzatzeko modu tradizional hori galtzearen beldur baitziren; galtzeko beldur hori uneoro mantendu baita baztandarren artean duela hamar urte inguru arte, gutxi gorabehera: «Ez galtzeko, uste dut; gustetzen zitzaiten eta ez galtzeko, nolapaitere nahi nuen ikesi...» (Manu).

Tradizioak ez du Baztan bailaran soilik horrelako garrantzia, munduko hainbat bazterretan ere bertako kulturaren parte diren tradizioak ere garrantzitsuak baitira. Esaterako, Argentinako Salta eskualdean ikusi ahal izan genuen Ama Lurraren omenez egiten den erritua, edateko zerbait eskatzean lehenik lurrera pixka bat botatzekoa. Hala ere, badaude ere desagertu egin diren edota anitzen ustez desagertu beharko liritekeen bertze tradizio batzuk. Dantzen kasuan adibide anitz ditugu, Altsasuko kintoen kasua, esaterako. Altsasun, 1930etik aitzin, mutil-kintoak izan dira ospakizunaz arduratu direnak (hala nola errege-hautaketaz) eta lortutako diruarekin (neska-kintoek egindako opilen bidez, kasu) egindako bazkarian ere mutilek bakarrik hartzen zuten parte. Baina 1962. urtetik aitzinera, neska-kintoek parte hartzeko mugimendua ematen hasi zen, eta egun kinto-egun horiek modu mistoan ematen dira (Altsasuko Feministak eta Bilgune Feminista, 2014: 9).

Tradizioaren harira, baztandar gizartearen zati batek behintzat mutil-dantzak bere identitate eta emozioen parte hartu ditu. Identitatea, UNESCOren arabera:

Los usos sociales, rituales y actos festivos constituyen costumbres que estructuran la vida de comunidades y grupos, siendo compartidos y estimados por muchos de sus miembros. Su importancia estriba en que reafirman la identidad de quienes los practican en cuanto grupo o sociedad (unesco.org).

Dantzei erreferentzia eginez, eta mutil-dantzetan egindako elkarrizketetan atera den informazioari begiratu, Aranburuk errandakoa gogoratuko dut:

Junto a lengua, derecho, costumbres, creencias, valores, símbolos, indumentaria, alimentación..., las danzas tradicionales integran la estructura simbólica que define la identidad de un grupo humano (Aranburu, 2000: 12).

Emozioei dagokionez, Rappaportek (1999) dio errituetan emozioek garrantzi handia daukatela eta horrek indarra ematen duela. Rappaportek dioenez, emozio horiek handitzen ahal dira edo kontrako eragina izan. Horretarako, hainbat autore aipatzen du, eta baztandarrek mutil-dantzekin dauzkaten emozio horien parte direla ulertzeko, Durkheim edota Radcliffe-Brown (1964) hartzen ahal ditugu aintzat. Izan ere, haien erranetan, «los rituales proporcionan el soporte emocional a la organización social».

Aitzitik aipatu bezala, mutil-dantzak ez dira edozein dantza; baztandarren dantza dira, eta beraien parte dira. Identitate eta emozioak sartzen dira bertan, beraz. UPNko Ireneren hitzei jarraikiz, «es más un sentir que otra cosa», «tengo una visión romántica». Ricardok ere horrelako ikuskera dauka mutil-dantzei dagokionez: «Una cuestión irracional, sentimental, es una cosa que no tiene un razonamiento claro, pero está ahí, y no se puede ni quitar, ¿no?». Identitatea, hala ere, gizonezko baztandarrekin identifikatu izan da, tradizioz emakumezkoek ezin baitzituzten mutil-dantzak dantzatu. Egun, ondorioz, honela adierazten du Ionek: «Emakumeak dantzatzen du por el placer de bailar, eta gizona ai da por el rollo identitario».

Identitate horren inguruan ere Begoña Aretxaga mintzatu izan zaigu *Los funerales en el nacionalismo radical vasco* liburuan. Testuinguru horretan, abertzaleen hiletan analizian, Aretxagak azaltzen duenez, «si el hombre ha de asumir la actividad de la lucha, la mujer tiene la responsabilidad de hacer posible su perpetuación a través de los hijos. Unos se proyectan hacia el exterior, las otras contienen y mantienen viva la “llama de la lucha”» (1988: 92). Egoera horretan, semeak hartzen du ekintza publikoaren lekukoa, eta ama izanen da haren zain geldituko dena eta haren memoria gogorazaziko duena haren heriotza, dispersio edo desagertzeagatik. Gizonezkoak izan behar du euskal abertzaletasunaren identitatea eramaten duena, emakumezkoak berriz bertze paper bat hartzen duelarik, identitate horren ama, emazte edo alabarena, identitate horretatik at gelditzen delarik.

#### 4.2. Nortzuk ziren plazan dantzatzen ziren mutil dantzariak? Nortzuk ziren danbolin nagusiak?

Ionek aipatzen duen «rollo identitario» horretatik botere-harremanetara heltzen gara, mutil-dantzek tradizioz boterea erakusteko balio baitzuen: «Mutil-dantzak, ez herri guztietan baina batzuetan, historikoki boterearekin lotuta egon dira». Marko historikoan jada aipatu da mutil-dantzak bi modutan banatzen ahal direla: zeremoniala eta besta-girokoa. Mutil-dantza zeremonial horietan, Ionen hitzei jarraikiz, autoritatearen edota boterearen errepresentazio zuzena ikusten ahal da. Gainera, hark, dantza zeremonial horiek ere bitan banatzen ditu: «Izeten ahal da danbolinausien afera edo alkatian afera». Bi pertsonaia horiek guztiz lotuta daude aipatutako autoritate eta bo-

terearekin, alkatea bera herriko autoritatetzat baitaukagu eta danbolin nagusia, berriz, autoritatearen ordezkaria momentu horietan.

Boterea plazaren menderatzearekin ere dago lotuta. Hau da, plaza herriko espazio garrantzitsutzat harturik (bertan ematen baitira ekitaldi nagusienak, elkartzeko tokia delako...), Gonzálezek dioenez (nahiz eta bera frontoiaz ari, anitzetan sinonimotzat jotzen ditu, bertzela ere Euskal Herri mailan bai frontoia bai plaza bera gune garrantzitsuenetzat ditugu), komunitateak espazio hori berea bezala hartzen du, baita bertan ematen diren ekimenak ere. Normalki, plaza udaletxearen eta elizaren artean kokatua dago eta bertan ematen dira ekimenik garrantzitsuenak, herri bazkariak, jokoak egiten dira, dantzaldiak... (González, 2013: 88). Espazio hori berez neutroa izanagatik ere, hau da, inongo generoaren gaineko preferentziarik gabea, Gonzálezek aipatzen duen bezala, genero bilakatzen da, genero maskulino alegia. Dena dela, genero-ikuspegietan sartu gabe ere, aipatu behar da espazio hori boterearekin guztiz lotuta dagoela, herriko gunerik garrantzitsuena baita. Espazioa beti geografiarekin lotuta egonagatik ere, espazio hori eraldatu eta batzuen boterearen alde erabili izan da. Botere hori generoko botere-harremanekin edota botereko klase-harremanekin dago lotuta. Ondorioz, mutil-dantzariak plazan (herriko gunerik garrantzitsuenean) dantzatzen hasten direnean, plaza bere bilakatzen dute. Gizonezkoak zirkuluan jarririk dantzan hasten dira eta inguruan publikoa daukate haiei begira, eskusiboak dira eta boteredun sentitzen dira. Ionen hitzetara bueltatuz, momentu horretan, non mutil-dantzariak dantzan dauden, autoritatearen presentzia ematen da, eta guneak berak boterea emanagatik ere, pertsona batzuek bertzeen gaineko boterea erakusten dute. Horren harira, Jaione (Jo ala Joko taldekideari 2013an grabatutako bideoan), Elizondo mintzo, kutsu elitista duela edota dantza eskusibotasun bat izatera iritsi dela erratera ausartzen da. Nolabait, herriaren aitzineko errekonozimendu modura erabili izan dira mutil-dantzak. Ondorioz, bere ustetan, emakumezkoen parte-hartzearen aurka daudenak ez daude kontrari emakumezko hutsak izateagatik soilik, baizik eta aipatutako errekonozimendu edo eskusibotasun hori galtzearen beldur direlako.

Kasu honetan, Elizondoko Santio egunean adibidez, ezin zituen edozeinek dantza horiek ireki. Marko historikoan aipatu den bezala, *Aunitz urtez* batekin irekitzen dira dantzak eta horiek herriko boteredunen ordezkariak dira, garrantzitsuenak momentu horretan. Ondorioz, ikusi egiten da mutil-dantzariak kokalekua dela-eta berez daukaten botere-sentsazioa, bai eta, kasu honetan, danbolin nagusiek ere izanen luketen «botere bikoitz» hori ere; alde batetik, herriko tokirik garrantzitsuenean dantzatzegatik, eta, aldi berean, beraiek direlako dantzan hasten direnak, bertzeak baino gehiago direla erakusten.

Egun, hala ere, gizarteko banako bakoitzak okupatzen du plaza eta denek daukate dantzatzeko eskubidea. Ondorioz, «ja jende guziek dantzatzen badu, ja ez da hain eskusiboa; dantzatzen ahal du kristo guziek, orduen ja ez da hain inportantea, ta nik uste hoi aunitzei ez zaiola gustetzen» (Javier, EH Bilduko zinegotzia). Plazara Dantzarakoek azaltzen duten bezala, «edozein dantzetan ez zaitu gelditzen jendia korroan beire nola dantzatzen duzun; da espektakulo bat, erakusgarri bat bihurtzen da mutil-dantza. Orduen, gizonak bakarrik dantzatzeko horrek, berek bihurtzen dire aktibo eta zu ez zara, beraiek dire protagonistak». Azkenean, eszenatoki horretan jartzen direnean, irudipen horretara iristen dira eta espazio hori tenplu bilakatzen da, kontenplatzeko moduko



eszena, non irudi hori erreproduzitu eta leheneratzen den. Espazio komunitario horretan horrelako ekintza formal bat egiten denean, herritar guztiak herriari bizkar ematen diote eta dantzari horiei begira gelditzen dira, gorputz horiek kontenplazten. «La disposición del público genera el templo donde las principales figuras escenifican la representación. Los cuerpos de los espectadores les otorgan el lugar. Es la expresión más clara del cuerpo social y de aquello que lo representa» (González, 2013: 88). Modu horretan, plazak (espazio komunitario gisa ulertutakoak), genero-ikuspegia hartzen du, kontenplutako gorputz horiek bertan kokatzen baitira, bereziki maskulinoak izateagatik. Nahiz eta edozeinek plaza modu informal batean okupatzen ahal duen, ekimen garrantzitsuenak maskulinoak dira (González, 2013: 89).

Ondorioz ikusi da, jada plaza denen parte-hartzera zabaldu denean, boterea maite duten anitzek ez dutela gustuko izan eskusibotasun hori galtzea, baina eskusibotasun horren falta emakumezkoen leporatzen zaie. Inork ez baitio haur bati dantzarik egin ez dezala oihukatu, edota 80 urteko gizon bati. Emakumezkoak izan dira oihu artean biribiletik atera behar izan duten bakarrak. Horregatik erran behar da genero-aferra bat dela, botere-harremanekin guztiz lotuta dagoela. Azken finean, emakumezkoen mutil-dantzak dantzatzeko dituztenean gizonen lekukoa hartzen dute, eta, ondorioz, generoen arteko botere-harreman hori apurtzen da. Genero- eta botere-harreman horien loturaz proiektu hau egiten ari nintzenean konturatu nintzen, elkarrizketak egiten hari nintzela, duela 30 urte edo gehiago gertatutako pasarte bat kontatu zidatenean, hain zuzen. Urte horietan gizonen mutil-dantzak publikoki dantzatzeko zituzten, eta Baztango plaza batean, emakumezko bat azaldu zen mutil-dantzak dantzatzera. Txistularia, kasu horretan, Mauricio Elizalde zen, aitzitik aipatutako musikaria. Gizon hura ez zegoen emakumezkoen dantzatzeko alde, baina hala ere ez zen isildu eta emakumezko horrek plazan bertze gizonen batera dantzatu zuen. Emakumezko horri ezer ez erratearen arrazoia haren familiaren boterea izan zen, etxe garrantzitsu bateko alaba baitzen. Ondorioz, adibide horrekin argi eta garbi ikusten dugu boterearen eta generoaren arteko lotura.

Dantza horietan, autoritatearen edota dantzarien botereaz aparte, klase-harremanak ere aztertu behar dira. Nahiz eta orain ez den agian horrelako banaketarik ematen, mutil-dantzetan historikoki klase-harremanen banaketa agerian gelditzen zen, Ionen hitzei jarraikiz: «Eta garai hartan nor ziren alkatiak? Etxe haundikoak. Eta danbolin nagusiek nor ziren? Etxe haundiko semiak. Eta nor ziren danbolin etxeandriak? Etxe haundiko alabak». Posiblea zen danbolin nagusiari neska polit bat gustatzea eta dantzara atera nahi izatea, baina zein etxekoa zen begiratu behar zenez, gertatuko zen dantzara ez ateratzea.

Hemen argi gelditzen da Baztan bailaran eman den klase-harremanen estratifikazioa eta zenbateko garrantzia zuen etxe batekoa ala bertzekoa izateak. Ez da kasualitatea Baztanen mutil-dantzak dantzatu dituen emakumezkoak etxe garrantzitsu bateko alaba izatea. Nola atera behar zuten emakume hura zirkulutik at?

Egun, berriz, nahiz eta jauntxokeria hori ez den plazan ematen, sentimendu horrek bizirik jarraitzen du eta oraindik badago jauntxokeria edota klase-harreman horien alde dagoen baztandarrik. Mirenek klase-zapalkuntza hori hizkuntza-zapalkuntzarekin eta emakumearen zapalkuntzarekin lotzen du, hau da, azaldutako klase-harremanen

desberdintasuna eta erdararen nagusitasuna guztiz lotuta daude ematen den generozapalkuntza horrekin. Ondorioz, diskriminazio hirukoitza emanen zen kasu horretan (klasea, generoa, hizkuntza): behe-mailakoa izatea, emakume izatea eta aldi berean euskaraz mintzatzea.

Gizabanakoak alde batera utzirik, aipatu behar da klase-harreman horiek herri batzuetan gehiago nabaritzen direla bertze herri batzuetan baino, hala nola Elizondon eta Elbeten. Ez da kasualitatea izanen, orduan, mutil-dantzekin eman diren gatazkarik handienak herri horietan ere izatea.

Klase-harremanen eta boterearen errepresentazio horiek herriko espazio publikoetan eman izan dira beti. Mutil-dantzak herriko plazarekin lotu izan dira, plaza baita mutil-dantzen gune solemnea, aitzitik González antropologoak erran bezala. Ondorioz, mutil-dantzari guztientzat, pentsamenduak pentsamendu, plazaren jabe izatea guztiz garrantzitsua da. «Plazaren espazioa aseguretzia da neretako arras inportantea» (Javier, EH Bilduko zinegotzia). Baztango Mutildantzariak, adibidez, ez dute Baztango plaza publikoetan dantzatzea lortu. Herriko bertze espazio batera joan behar izan dute, baina borrokan ari dira plaza hori beraiena egiteko: «Gainera, nik uste guk ere eskubidea dugule plazan dantzatu ahal izeteko. Gu ere Baztandarrak gara!» (Carlos).

Espazioaz mintzo, mutil-dantzen gaineko eztabaida guztietan publiko/pribatu konzeptuetara iritsiko gara. Geroa Bai eta EH Bilduk argi dute, plaza espazio publikoa den heinean, pertsona orok eskubidea daukala mutil-dantzak dantzatzeko, mutil ala neska izan. Geroa Baik honela dio: «Hemos dejado claro que se baile en la plaza, en el espacio público que es el lugar de referencia, que se baile el mixto». Baina zer gertatzen da espazio publiko hori plaza ez bada? Plazara Dantzarak honela dio: «Bagenekin dantzatzeko eskubidea dugula eta dantzatuko dugula espazio publiko guztietan, nahi izanez gero, ez?» Kasu hau argi dago eta legeak horrela dio, baina badira hori ulertzen ez duten baztandarrak. Alegia, ulertzen dute emakumezkoek zein gizonezkoek eskubidea dutela edozein espazio publikotan dantzatzeko, baina uste dute, beraien moduan egin nahi badute, beraiek egin dezaketela. Dantza talde horretako kideren batek futbol talde eta mendi-martxa banaren adibidea jarri zidan beraien postura ulertarazteko: «Bertzetik ere, toki publiko batian, futbol zelaian adibidez, badire mutilen futbol-partiduak, non mutilek bakarrik parte hartzen duten, ta neskena, hemen neskek bakarrik dantzatzen dutena... Sunbillan ere antolatzen da *Los 800 ducados* mendi-ibilaldie, non neskek bakarrik parte hartzen duten... ta hor ez da ja pasten. Neri ongi iruditzen zait...».

Hala ere, nahiz eta beraiek horrela ulertu, anitzek ez dute horrela ikusten, ez baitute adibidez herriko bestetan plazan dantzatzea lortu. Orain arte espazio pribatuetan egin behar izan dute, eremu publiko batera dantzatzera atera direnean arazoak izan baitituzte dantza-emanaldia egiteko. Horregatik, baztandar batzuek, beraien helburua lortzeko, hau da, mutil-dantzak modu «tradizional» batean mantentzea lortzeko, mutil-dantzak pribatizatu dituzte. Horrela, ekitaldi edota espektakulu bihurtzen dituzte mutil-dantzak, taldekide ez diren pertsonen parte-hartzea debekaturik. Behin haiek dantzan hasten direnean, talde pribatu diren neurrian, nahiz eta espazio publiko batean dantzatu, beraiek erabakiko dute parte-hartzaile gehiagok dantzatzen ahal duen ala zortzikoa iritsi arte ezin duen inork dantzatu. Honela zioen Ricardok: «Aludiendo que es un espacio público y demás, pero es que en un espacio público se hacen actuaciones,

exhibiciones, un montón de cosas. Y eso era una actuación programada y contratada por...».

Horrekin argi ikusten da denek plaza bereganatu nahi dutela, eginbeharrak eginbehar, kasu horretan Baztango dantza herrikoiak diren mutil-dantzak pribatizatuz.

### 4.3. Emakumezkoa izateagatik baztertuta

Espazio publikoaren testuinguru horretan sortu da genero-gatazka Baztan bailaran. Aipatu den bezala, duela 30-40 bat urte jada emakumeren bat edo bertze mutil-dantza dantzaten hasi zen plazan. Halere, genero-gatazka duela hamar urte inguru hasi zen. Zergatia? Ez da diskurtso bakarra existitzen; batzuek komunikabideen eragina aipatzen dute, bertze batzuek Bidasoako alardeen afera... Kausak kausa, duela urte batzuk, Baztango hainbat plazatan sexu batekoa ala bertzekoa izateagatik arazoak izaten hasi ziren dantza horietan.

Berdintasunarekin hasi aitzin, aipatzekoa da genero-ikuspuntua horretan eta mutil-dantzetan zer nolako garrantzia daukan zuzenean ukitzen duen gorputzak. Mutil-dantzetan, gizonezkoek, beraien gorputza bide harturik, abilezia, noblezia... erakusten dute. Orain ez da horrenbertze ematen noblezia edota abilezia hori, erritua bera aldatuenez, denek ez baitute dantzatzeko abilezia berdina. Hala ere, duela urte batzuk erakustaldia zenez, gorputza baliatuz erakusketa egiten zuten. Gorputzak hartzen zuen identitatearen erranahia, eta haiek herriaren ordezkariak hartzen zuten beraien burua. Egun, oraindik ere badago sentimendu hori daukan jendea, baina aniztasunaren mundu honetan, jada ez dago gorputz abil eta nobleendako tokirik. Egun, mutil-dantzak haur, gazte, heldu, emakume zein gizonezkoek dantzaten dituzte, gorputz ugariak sortuz, jada galdu egin baita gorputz horren sinbologia. Ondorioz, gizonezko horiek ez dute gorputzaren baitatik aurkeztutako botere-harreman hori mantentzen ahal.

XXI. mende honetan, gure gizarteak oro har errespetatu egiten du. berdintasunaren kontzeptua. Hala ere, teoriatik praktikara salto handia dago, eta praktikan anitzek huts egiten dute. EH Bilduko zinegotziaren hitzei jarraikiz, «guk uste dugu eta ordu da, berdintasuna aldarrikatzen den moduen, gero plazan ere bai, edo egunerokoa aplikatzea ere bai». Baztango Udaleko alderdi politikoko zinegotzi edota taldekideei genero-gatazka horren inguruan galdetzean, denek diskurtso berdina zuten (batzuek alderdiaren izenean erran zuten; bertze batzuek, berriz, iritzi individual moduan), denek uste dute dantza horiek edozeinek dantzaten ahal dituen dantzak direla eta plaza publikoan inork ezin duela emakumezkoen parte-hartzea debekatu.

Egindako bertze elkarrizketetan ere ideia berdina atera zen, hala nola Baztango Mutildantzariak taldeko Ricardok esandakoa:

No es cierto que nosotros impidamos que las mujeres bailen las mutil-danzas. ¿Por qué no vale? Entendemos que ambas mutil-danzas tienen que convivir, las ambas maneras de interpretar tienen que convivir, y lo lógico, tal y como van los tiempos y la sociedad y demás, es que las nuevas generaciones acaban convergiendo que prácticamente solo haya una mutil-danza mixta.

Baina nahiz eta teorian berdintasunaren alde egin, EH Bilduko zinegotziak dioen bezala, praktikan ez da ematen eta plazan ere nabarmena da oraindik berdintasunaren gainera desberdintasuna dagoela:

Azkenean hemen ez du inork uste matxista denik, inork ez du uste razista denik... Baina hemen nik uste dut, eta gehienbat nire ustez, lan handia egin behar da eremu aurrerakoietan. Suposatzen da jende hori zapalkuntzen aurka dagoela eta hausnarketa hori egiteko prest dagoela, baina gero, errealitatea iristen denean, etorri zaizkigu erratera noiz, nola, non eta norekin, eta hori uste dut klabea dela hemen (Miren, Plazara Dantzarako kidea).

Ionek argi ikusi izan ditu emakumeak parte hartu ahal ez izateko eman diren estrategia desberdinak:

Ordura artio iten zuten neskak dantzatu... ta txistularia kendu dugu eta oain ez ditugu onartuko neskak, fuera. Gero tranpa gise hasten dire Elbeteko dantzariak eta gero ez dakit ze... total ez zirela Elbeteko dantzariak, zeren sartzen da kontzejal bat dantzan eta ez dago problemik; sartzen da alkate anderea eta orduen problemak.

Ondorioz, alde batetik txistulariaren papera izanzen genuke, non hark nahi badu edota herriko alkateak ez jotzeko erraten badio, jotzeari utziko dion edozein neskak plazan mutil-dantzak dantzatzeko baditu. Bertzetik, nesken parte-hartzea ekiditeko talde pribatuaren sorrera egon litzateke. Bi estrategia desberdin, eta Elbeteko herriak biak erabili izan ditu. Aipatzekoa da ere bai Amaiur eta Elizondo herrietan txistularia isildu izan dela herrietako bestetan, eta, ondorioz, Udalak txistulariz aldatzea erabaki zuen horrelako diskriminaziorik ez emateko.

Baztango Mutildantzariak argi dute taldearen sorrera, beraien iritziz ez baita diskriminazioa; beraien espresioa adierazi ezin zuten, eraso zituztela sentitu zuten eta taldea egitea erabaki zuten: «Hablo de un grupo de personas que nos acosan. Creo que están faltando a algo que está padeciendo la mutil-danza, que es al respeto a sentir y a expresarse, ¿no?». Eraso hitza jada aipatuta, indarkeriara pasako gara, dantza talde horretako kideek erasoak baino gehiago jaso dituztela sentitzen baitute.

Proiektu hau egiten ari nintzela, aukera izan nuen hainbat testigantza jasotzeko. Ez ditut hemen denak azalduko, aitzinetik bat azaldu baitut jada, baina eraso horiek zergatik eman diren eta ematen ari diren aztertzea beharrezkoa da. Mutil-dantzetan eraso gogorrenak duela 8-10 bat urte hasi ziren, mutil-dantzak berriz beharrezkoak zirenean. Jo ala Jo kultur taldea, adibidez, lan handia egiten hasi zen 1999. urtetik aitzin mutil-dantzak erakusten, eta Elizondon bertan eta bertze herri anitzetan ere mutil-dantzen ikasaroak ematen hasi zen. Jende gehiago hasi zen dantza horiek ikasten, eta jende gehiagok ikasteak aitzitik aipatutako botere hori gainbehera joatea ere eragin zuen. Ondorioz, botere hori galdu nahi ez zutenek emakumeen aurka jo zuten. Emakumeen parte-hartzea saihesteko, Mirenek gogorarazten duenez, presioa arras handia izan zen, eta itsuskeria handiak egon ziren. Jada talde kolektiboan mintzatzen, Plazara Dantzarako izenean horrela kontatzen zuen:

Erasotuak izan gara eta beldurra pasa dugu. Mehatxu egin digute behin baino gehiagotan, ostiatu behar zigutela, Lekarozen ere bai... Orduan, nik uste, beldurra alde horretatik eta baita ere babes falta maila handia batean ere horretatik izan da.

Baztango Mutildantzariak ere eraso izan dituztenez, honela azaldu zidan Carlosek: «Baztango mutil-dantzari taldeko kideren bati ere irainak iritsi zaizkio... mezu anoni-moak bidali izan dira...».

Ekintzarik ezagunena, hala ere, Elbeteko bestetan duela urte gutxi gertatutakoa izan zen, non gizon-talde batek beraien interesak argi uztea lortu zuen, mutil-dantzen afera genero-afera dela erakutsiz. Aitzitik aipatu ez bada ere, Baztango hamabortz herrietako bestetan, besta-egun nagusian, San Pedro egunean, Santiago egunean... Udaleko ordezkariak meza nagusira gonbidatzen dituzte, bai eta ondotik datozen mutil-dantzetara ere. Kasu horretan, Elbeteko besta-egun nagusia zen eta udal-ordezkarik pare bat joan zen: alkatea (emakumezkoa) eta zinegotzietariko bat (gizonezkoa). Mutil-dantzen ordua iritsi zen, eta, horretarako, herritar batzuk elkartu egin ziren mutil-dantzak talde moduan erakusteko, hau da, talde bat sortu zuten mutil-dantzak dantzatzeko. Musika hasi zen eta mutil-dantzari horiek dantzan hasi ziren, eta zinegotzi hori ere animatu eta dantzara sartu zen. Momentu horretan ez zen ezer gertatu, denek berdin dantzatzen jarraitzen zuten, eta, ondorioz, alkateak ere dantzatzea erabaki zuen, bere lagunaren gibelean jarriarik. Baina orduan ez zen zinegotzia sartu zeneko harrera berdina izan: txistuak eta irainak bazter guztietatik iristen hasi ziren haien zeuden tokira. Plaza horretan zeuden anitzek ez zuten ongi hartu emakumezkoak egindako interferentzia eta argi utzi zuten hori. Dantzariak ere desadostasuna erakutsi eta plazatik alde egin zuten, txistulariak, alkatea eta zinegotzia plazan utzirik. Horiek ere gutxi iraun zuten plazan dantzan, eta, azkenean, mutil-dantzak dantzatu gabe gelditu ziren. Hona hemen bertan parte hartu zuen mutilaren testigantza:

Karo, pentsatu ginuen biek batian sartzia, bainon nik erran nion: ez, erakutsi bar dugu kasu huntan problema ez zela udal-ordezkariek sartzia edo mutikoak sartzia, baizik eta kasu huntan problema egiazkoa dela emakumea sartzen den momentue. Eta hortako pentsatu ginuen jokaldie izanen zela: lehenengo sartuko naiz ni eta gero egonen naiz rato bat dantzatzen eta kusk duzu dantzak segituko duen, nahiz eta beren dantza taldea izen, ta gero sartuko zara zu eta gelditiko da. Halaxe pentsatu ginuen eta halaxe gertatu zen. [...] Holako batian segidoan sartu nintzen ni. Eta bai, bakarren baten marmarra ta hola aitu nuen ta «tendrá que respetar porque es solo del pueblo... no sé qué, no sé cuántos...». Egon nintzen rato bat ni bakarrik eta ez zen gehiagokoik izen, eta are gehiago erranen datzut, eta seguru naiz nik hor kusten nuen jende aunitz eta hi, hau baldin bada in bar dutena, mutikoa bakarrik sartzen, eta ez neska, ezta problemik. Ta hor egon nintzen rato bat eta ez zen inongo problemik izen, inor ez zen oihuke hasi, ez ziztuke, ez ja. Aipetu datzutena, batek bainon ja. Bainon halako batian Miren sartu zen, ta denek badakigune, orduen hasi ziren oihuek, ziztuek... Musikek segitu zuen, dantzari guziek atra ziren eta gu biek bakarrik gelditu ginen, eta jende guzie lekutu zen ostature, etxera... Batzuk oihuek bertzeak ziztuek... [...] Ta segitu ginuen rato bat dantzatzen, bainon ni, egie erran, arront nerbiostue nindagon eta ja nahasi ginen eta gelditu ginen eta listo.

Ondorioz, ikusten da mutil-dantzekin gertatu diren eraso guztiak arras gogorak eta bortitzak izan direla. Hala ere, EH Bilduko Javierren iritziz, pausoa eman behar zen, eta, gogorra izanagatik ere, bere gauza onak ekarri zituen, hala nola Elizondoko plazan orain dantza parekideak direla. Momentu horretan, emakumezko batzuek beraien indar guztiak hartu eta plazara joatea erabaki zuten, emakumezkoen tokia ere bazela aldarrikatzera (2009). Horrelako ekintza desberdinekin, adibidez, Baztan mailan mutil-

dantzen aferan berdintasunaren aldeko pausu handiak eman dira, orain mutil-dantzak dantzatzen diren herri guztietako mutil-dantzak parekideak izatea lortzeraino.

Akitzeko, aipatzekoa da gatazka horrek guztiak bere alde positiboa ere izan duela dantzak mantentzeari dagokionez, egun inoiz baino dantzari gehiago baitira Baztango plaza guztietan. Gainera, Mirenek dioenez, gatazka horrek Baztanen feminismoa indartzeko ere balio izan du, baita berdintasunaren aldeko pausuak emateko ere.

Dantza horien inguruan egindako elkarrizketa gehienetan oraindik ere landu gabeko «errespetua» egonen litzateke, dantzarekiko errespetua, dantzarietako errespetua... Errespetu hitza politikariek erabili izan dute bereziki, jarrerarik ez hartzeko ahalegi-nean. Aitzitik ere aipatu bezala, talde gehienek diote plazan berdintasuna eman behar dela eta, ondorioz, plaza publikoan dantza parekideak eman behar direla. Hala ere, dantza parekideak bermatzen ez dituen taldeaz mintzo, errespetua zor zaiela aldarrikatzen dute, jarrera horrekin bi posturak defendatuz: alde batetik, berdintasunaren alde borrokatzen dutela, baina, aldi berean, emakumezkoak onartzen ez dituen taldea defendatuz. Kasu horretan, mutil-dantza tradizionala dantzatzen duten gizonezko horiek errespetatu behar direla diote, horrela dantzatu nahi badute zergatik ez zaien utzi behar aldarrikatuz. Azken finean, plaza parekidea bada, bertze toki batean dantza parekidea ez egitea ez dute arazotzat ikusten.

Bertzetik, errespetua tradizioa mantentzeko justifikazio gisa ere erabiltzen dute. Tradizioa, den bezala izanagatik ere, mantendu behar den zerbait da, kasu horretan baztandar gizartearen ondarea eta kultura delako. Mutil-dantzak tradizioz dantzatzen diren bezala dantzatu behar dira, eta errespetatu egin behar dira tradizioa ez galtzeko; gure ondarea ez galtzeko, alegia. Ondorioz, errespetua giza eskubideei gailentzen zaie eta tradizioa mantentzearen alde egiten du. Finean, mutil-dantzak ez dira diskriminatzaileak, dantza horiek dantzatzeko modua baizik. Dantzariak bilakatzen dute dantza diskriminatzaile, eta horiek ere errespetatu behar omen dira.

## 5. ONDORIOAK

Behin lana garatuta, erran daiteke hasieran aipatutako helburuak lortu egin direla eta hipotesiak egiazkoak direla ikusi dela.

Alde batetik, mutil-dantzek Baztan bailaran garrantzia duten dantzak direla frogatu da. Nahiz eta gerrak, modek eta abarrek dantza horien egoera zaildu duten, herritarrek horiek iraunaraztea lortu dute, eta egun indar handia lortu duten dantzak izatera iritsi dira. Mutil-dantza horiek boterearekin zerikusi handia izan dute tradizioz, eta horrek iraunarazteko orduan ere garrantzia izan du. Urte anitz dituen dantza horrek sentimendu desberdinak eraiki ditu baztandar gizartearen, herritar anitz beraien tradizioa mantentzearen sentimenduez mintzo baitira, elkarrizketetan ikusi ahal izan den bezala. Sentimendu horiek irrazionalak direla diote, baina, indar handia dutenez, zapaldu ezinak direla, ezin omen baita sentimendu horiekin jolastu, gauza arras seriotzat hartzen baitute batzuek sentimenduen aferarena.

Sentimendu horiek, identitate- eta komunitate-sentimendu horiek, ez dira soilik Baztango mutil-dantzetan ematen; Euskal Herriko bertze folklore-gune batzuetan ere

adierazi izan dira, hala nola Irungo eta Hondarribiko alardeetan. Alarde horiek ere ikertu izan dira, eta sentimendu berdinak plazaratzen dira:

Alardearen alde emozional eta antiarrazional hori bermatzea eta bere testuinguru politiko eta sozialetik bakartzea aldaketaren aurka agertzeko arrazoia zuzitzeko estrategia da. Tradizionalistentzat «bihotza» da kontua hemen. Sentitzen den eta hunkitzen duen errituala da... Nolabait, «betiko alardea» nahi duten horiek alardearen ahalmen hunkigarria galduko den beldurrez direlako agertzen dira emakumeen aurka (Moreno-Kerexeta, 2005: 36).

Gainera, prozesu horretan nortasun hori indarberritu egiten da, legearen aitzinean kokatzera iristeraino. Kasu honetan, bai alardean eta bai mutil-dantzetan, tradizioa hizpide hartuta, eman dadila nahi ez duten aldaketa horren aukeratzat jotzen dute (Moreno-Kerexeta, 2005: 40).

Bertzetik, mutil-dantzen gainean ematen den afera genero-aferra dela argi gelditu da. Tradizioa guztiz eraldatu da gaur egun, mutilek bakarrik dantzatzen ohi zituzten dantzak izatetik gizarte guztiak dantzatzen dituen dantzak izatera pasa baitira, egun haurrek, gazteek, helduek eta adinekoek dantzatzen baitituzte. Inork ez du kritikarik egin 70 urteko gizon batek plazan mutil-dantzak dantzatzeagatik, ez eta 14 urteko mutil batek dantzatzeagatik ere. Kritikak emakumezkoek soilik jaso dituzte, daukaten adina daukatela. Ondorioz, argi gelditu da arazoa generoa dela. Horrekin ikusten da mutil-dantza «tradizionala» babesten duten horiek tradizio asmatu bat babestu nahi dutela, hau da, emakumezkoen parte-hartzerik gabeko baina gizarteko gainerako pertsona guztiak onartzen dituzten mutil-dantzak babestu nahi dituztela. Asmatutako tradizio horretaz mintzo da Hobsbawn historialaria:

La «tradición inventada» implica un grupo de prácticas, normalmente gobernadas por reglas aceptadas abierta o tácitamente y de naturaleza simbólica o ritual, que buscan inculcar determinados valores o normas de comportamiento por medio de su repetición, lo cual implica automáticamente continuidad con el pasado. De hecho, cuando es posible, normalmente intentan conectarse con un pasado histórico que les sea adecuado (Hobsbawn, 1983: 8).

Hala, tradizioa mantendu nahi dutenen artean Baztango Mutildantzariak ditugu, eta horietako batekin mintzatu nintzenean argi erran zuen beraiek egiten zutena mutil-dantza tradizionalen kopia txar bat zela: «Una copia mala. Definitivamente una copia. Pero es lo que sentimos. Una copia, mala, pero una copia» (Baztango Mutildantzariak taldeko kide bat). Ondorioz, bertan argi ikusten da Hobsbawnek dioen teoria, beraien sentimendu eta ekintzak justifikatzeko tradizio zati bat erabiltzen baitute, «komeni» zaien tradizio zatia, alegia. Tradizioa bere osotasunean mantendu nahiko balute, ez lirarteke ez haurrak ez adineko jendea bertako partaide izanen.

Tradizio horrek Baztan bailaran pisua daukala argi ikusi ahal izan dugu, UPNko Ireneren «son una joyica» hitzek gogorarazten duten moduan, eta anitzek horrelako tradizioak mantendu behar direla uste dute. Adibide bat jartzearen, ablazioa tradizio handiko ekintza da, baina anitz ez gaude horren alde eta ekintza hori desagertzea nahi dugu, ez baita egokia eta emakumezkoen eskubideen aurka baitago. Horrekin ikusten

da tradizio guztiak ez direla sozialki egokiak edo giza eskubideak betetzen ez dituztela. Batzuk onartuak daude oraindik, eta aitzitik aipatu dugun Altsasuko kintoen kasua birgogoratuz, eguneratu egin da. Horrekin, tradizioak bere horretan mantentzeak ekartzen duenaz ohartzen gara. Horregatik, tradizioak eguneratu behar direla ikusten dugu, gaurkotu, eta adibide horiek aintzat harturik mutil-dantzak ere eguneratu behar direla deritzot, tradizioa mantenduz horiek ez desagerrarazteko, baina aldi berean gaurkotasunera hurbilduz, denen parte-hartzea sustatuko duen dantza bilakatuz.

Bigarren hipotesiarekin jarraituz, plazan dantzatzen diren mutil-dantza horietan gizonen gizontasunaren errepresentazioa egiten dute. Gizona izaki publikoa den heinean (*homo politicus*), herriaren espazio publikoena, eta nahiz eta profanoa izan, sinboliko ki karga handia duen plaza hartzen du. Bertan emakumeen aitzinean bere maskulinitasuna erakusten du, eta, bertze gizonen artean, prestigioa. Nire ustetan, gizontasuna eta prestigioa estuki lotuak daude, gizontasuna erakusten duen izaera eta ekintza publikoak izan baitira. Ondorioz, maskulinoak diren ezaugarriak (balentria, kompetentzia, gailentzea, abilezia...) prestigioari lotuak daude, gizonen betiere, noski. Emakumeek espazio publikoan gizonaek baino garrantzi txikiagoa izatea emakumearen zapalketa legitimatzeko erabil daiteke.

Horrela, bertze behin ere, gizonen eremu publikoa monopolizatzen dute. Eremu publikoari eta pribatuari buruz irakurketa interesgarri bat egiten du Michelle Zimbalist Rosaldok:

La valoración de la mujer como elemento secundario puede considerarse desde diferentes perspectivas. Aquí propongo, más que adelantar una causa explicativa única, un modelo estructural que exponga los aspectos recurrentes de la psicología y la organización social y cultural, relacionándolos con la oposición entre la orientación «doméstica» de la mujer y las actividades «extra domésticas» o «públicas» que en la mayoría de las sociedades son más fácilmente asequibles a los hombres (Rosaldok, 1979: 153).

Mutil-dantzen adibidera pasaz eta Bourdieuren hitzei jarraikiz, «los ritos sexualmente diferenciados consagran la diferencia entre los sexos» (Bourdieu, 1985: 79). Hala ere, emakumezkoek dantza hori dantzatzen dutenean, genero-bereizketa horren erranahi sinbolikoa irauli egiten da, eta jada ez dago ez generoko botere-harremarik ez gizonen gizontasunaren errepresentaziorik. Bi sexu edo generoek leku berdina hartzen dute plazan, espazioa parekide bilakatuz.

Akitzeko, mutil-dantza tradizional hori mantenduko ez denez, gizartearen gaur egungo pentsamenduarekin eta bizitzarekin bat ez datorrelako, dantzaren pribatizazioa ematera iritsi da, eta horren adibide dugu aitzitik aipatutako taldea. Nahiz eta egun ez dituzten mutil-dantzak soilik dantzatzen, hainbat euskal dantza ikasten hasi baitira, taldea mutil-dantzei eusteko sortu zen. Horrelako talde bat sortzeak emakumeen parte-hartzea galaraztea ekarri zuen. Ez da Baztango Mutildantzarien kasua, baina duela urte gutxi, Elbeten, bertze talde baten sorrera eman zen, Elbeteko mutil-dantzariak izenekoa. Talde hura gizonaek bakarrik zegoen osatuta, eta, talde pribatua izanik, taldekidea ez den edozein pertsonak haien dantzetan parte hartu nahi izatekotan, haien oniritzia jaso beharko du, eta, era berean, edozein pertsonak haien ekitaldian parte



hartzen badu, taldekideek aukera dute emanaldia gelditu eta beraien ekitaldia egiten utz diezaieen eskatzeko. Aitzinetik aipatu da gertatutakoa, eta argi eta garbi geratu da beraien taldearen helburua emakumezkoen parte-hartzea galaraztea zela.

Horrekin guztiarekin, mutil-dantzek Baztango gizartean sortzen duten identitate, kolektibotasun eta erranahi sinbolikoaz ohartu ahal izan gara. Tradizioa mantentzeko, batzuen nahi horrek baztandarren banaketa ekarri zuen, egun ezagutzen dugun gatazkara iritsi arte. Banatzeaz aparte, plazetan entzun ahal izan diren oihu, bulkada eta mehatxuekin ondokoari min egitera iritsi izan dira baztandar anitz.

Hala ere, aipatu behar da egun mutil-dantzak dantzatzen dituzten Baztango herrietako plazetan dantzak parekideak direla. Iruritan, adibidez, dantzatzeari utzi zioten gatazka dela medio, gaur egun mutil-dantza parekideak dantzatzen dira, baita Amaiurren ere. Herritar anitzen nahia plazan islaturik agertzen da, dantza parekideen alde daudela erakutsiz.

Ikusten denez, dantzan zein eguneroko bizitzan posiblea da tradizioaren gainetik jauzi egitea, neskek zein mutilek jauzi egiten jakinez gero, eta tradizioaren gainetik elkarrekin jauzi egiten jarraituko dugu.

## 6. BIBLIOGRAFÍA

- ARANBURU, M., *Danzas y bailes de Navarra*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2000.
- ARBEAU, T., *Orchésographie et traicte en forme de dialogue par lequel toutes personnes peuvent facilement apprendre & practiquer l'honneste exercice des dances*, Langres, 1588.
- ARRARÁS, F., *Danzas e indumentaria de Navarra*, Merindad de Pamplona (II), Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1987.
- BOURDIEU, P., *Ritos de institución. ¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Madril, Akal, 1985.
- BUTLER, J., *El género en disputa: feminismo y la subversión de la identidad*, Bartzelona, Paidós, 1990.
- BULLEN, M.; EGIDO, J.A., *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irun y Hondarribia*, Bilbao, UPV-EHU, 2003.
- COLOMBRES, A., *Celebración del lenguaje. Hacia una teoría intercultural de la literatura*, Buenos Aires, Ed. Del Sol, 1997.
- CONNELL, R., «La organización social de la masculinidad en Masculinidad/es. Poder y crisis», *ISIS-FLACSO Ediciones de las Mujeres*, 24, 1997, 31-48 orr.
- DELGADO, M., «Tiempo e identidad. La representación festiva de la comunidad y sus ritmos», *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 26, 2004, 77-98 orr.
- DEL VALLE, T., «El espacio y el tiempo en las relaciones de género», *Kobie*, v, 1991, 223-236 orr.
- ESTEBAN, M. L., *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bartzelona, Edicions Bellaterra, 2004.

- FARAPI S. L., *Gipuzkoako lurralde historikoko jaiei buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua eta Kultura eta Euskara Departamentua, 2009, <[https://dantzan.eus/fitxategiak/generoa\\_jaietan-eu.pdf](https://dantzan.eus/fitxategiak/generoa_jaietan-eu.pdf)> (kontsulta: 2016-06-19).
- FOUCAULT, M., *Historia de la sexualidad: la voluntad de saber*, Madril, Siglo XXI Editores, 1977.
- FRUTOS, L. M., «Geografía, espacio y poder», *Norba, Revista de historia*, 7, 1986, 123-136 orr.
- GONZÁLEZ, O., «Cuerpos desplazados. Género, deporte, y protagonismo cultural en la plaza vasca», *AIBR Revista de Antropología Iberoamericana*, vol. 8, n.º 1, 2013.
- HOBBSAWM, E.; RANGER, T. (arg.), *La invención de la tradición*, Bartzelona, Crítica, 1983.
- IRIGOIEN, I., *Danzas vascas en las escuelas*, Euskal dantzarien biltzarra, Bizkaiko ordezkariak, 1989.
- JORDÁ, E., *De canciones, danzas y músicos del País Vasco*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1978.
- LAMARKA, H., *La danza folklórica vasca como vehículo de la ideología nacionalista*, Baiona, Elkar, 1977.
- LARRALDE, X.; LARRALDE, P., *Baztango folklorea 1*, Bilbo, Grafías Logroño, 1991.
- MACÍAS REYES, R., *El trabajo sociocultural comunitario. Fundamentos epistemológicos, metodológicos y prácticos para su realización*, Malaga, Universidad de Málaga, 2012.
- MAUSS, M., «Essai sur le don. Forme et raison de l'échange dans les sociétés archaïques», *L'Année Sociologique*, 1923-1924, 1924.
- MINERVINO, M. N. et al., *Historia de unión vasca de Bahía Blanca*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzak, «Urazandi Bilduma», 8, 2003.
- MORENO, G.; KEREXETA, X., *Bidasoaldeko alardeak. Hiria versus hiria*, Bilbo, UEU, 2005.
- OZAITA, M., «Euskal dantza zertan da?», *Dantzariak aldizkaria*, Euskal dantzarien biltzarra, 2010.
- RADCLIFFE-BROWN, A. R., *The Andaman Islanders*, Free Press, 1922.
- RAPPAPORT, R. A., *Ritual and Religion in the Making of Humanity*, Cambridge, Cambridge University Press, 1999.
- ROSALDO, M. Z., «Mujer, cultura y sociedad: una visión teórica», en O. Harris, K. Young (arg.), *Antropología y feminismo*, Bartzelona, Anagrama, 1979.
- SACHS, C., *Historia universal de la danza*, Buenos Aires, Ed. Centurion, 1944.
- SÁNCHEZ, J. E., *La geografía y el espacio social del poder*, Bartzelona, Los libros de la Frontera, 1981.
- SOTO, P., «Sobre género y espacio: una aproximación teórica», *Revista GénEros*, 31, 2003, 88-93 orr.
- TIRANO, F. J.; MORA, M., «El espacio y el poder: Michel Foucault y la crítica de la historia», *Espiral*, vol. IX, n.º 25, Mexiko, 2002.
- TURNER, V., *Dramas, Fields and Metaphors*, New York, Ithaca, 1974.

TURNER, V., *La selva de los símbolos*, Madril, Siglo XXI, 1999.

URBELTZ, J. A., *Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los vascos*, Bilbo, Caja Laboral, 1978.

URBELTZ, J. A., *Euskal dantza sinboloen inguruan*, Donostia, Ostoa, 2001.